

Ben Lee australiarra

Pop doinuak egin zituen Amaian

KULTURA, 23



Preferenteko taldeak ondo ibili dira

Mondrak berdindu egin du eta UDak eta Aloña Mendik, berriz, irabazi

KIROLA, 12-13

Piztiak taldea

Arrasaten izan ziren zapatuan

KULTURA, 20-21



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko urtarrilaren 16a • 2. urtea • 85. zenbakia • 0,90 euro

AP-1 autobidearen azkeneko zatiari ekin diote Arbizelain

Aretxabaletako Arbizelain jarri zuten autobidearen lanen azkeneko faseko lehenengo harria

AP-1 autobidearen Arrasatetik Eskoriatzaraino doan zatiaren lehenengo harria jarri zuten egubakoitzean Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri diputatu nagusiak, eta Bidegiko zuzendari Nestor Aranek. Han izan ziren baita ere Arrasateko eta Aretxabaletako alkateak. 106 milioiko aurrekontua dute autobidearen 6,3 km-ek eta bi tunel eta hiru zubi. **6**

HIRU ZUBI ETA BI TUNEL
Gurutzetxikiko zubia izango da luzeena, 710 m. Lanik zailena, ordea, Arbizelaikoak izango du

2008RAKO AMAITUTA
Urte bi barru lanak amaitzea espero dute. Horrela adierazi zuten agintariek aurkezpenean

KM-EN LEGEGINTZALDIA
Txabarrri adierazi zuenez, "Autobide km. gehien egin den legegintzaldia izan da hau. Helburuak bete dira"

LAU ENPRESA
Dragados, Moyua, Geotunel eta Obras subterranas enpresei eman die lanen ardura diputatu nagusiak

Asteon hasiko da sagardo denboraldia gurean

Arrasateko Iturrieta sagardotegian eguenean hasiko dute. Horretarako, ekitaldi berezia egingo dute 20:00ak aldera eta hantxe izango da Alberto Inurrategi txotx egiteko. Bergarako Ixaun sagardotegiak, berriz, urtarrilaren 21ean, zapatuan, hasiko du denboraldia, baina ez dute aparteko ekitaldirik egingo. **8**



MARLJO DEGRACIAS

ZINEA ALDARRIKATZEKO BANDERATXOAK SALGAI

Bergaran zinema nahi dute herritarrek eta hori adierazteko *Zinea orain* dioten balkoietarako banderatzok saldu dituzte asteburuan. Eguaztenean Victoriano Gallastegi alkatearekin elkartzekoak dira eta eguenean, berriz, herri batzarra egingo dute kultura etxean, 19:30ean. Banderatzok tabernetan ere salgai daude, 3 eurotan. **6**

Gesalibar auzorako urbano linea berria hasiko da gaur **8**

Asteon irekiko dute Buztinzuri kalea Antzuolan **6**



JOSETXO ARANTZABAL

Zale guztiak asebate zituen

*Eskoriatzako kiroldegia bete egin zuen Benito Lertxundik **24***

GEUREAN

- Jolas, kantu eta ipuin ikastaroari zortzi gurasok ekin zioten zapatuan | 4
- Antzuolak etxe husak errentan jartzeko Bizigune programa hitzartu du | 5



Elsa Manso
Bergarako Bubisher
elkarteko
presidentearekin
jardun dugu | 7

DEBAGOIENENKO ETORKIZUNENKO GARRAIOBIDEA



ARTXIBOA

Tranbiak ia 16 Km-ko ibilbidea egingo du Debagoienez eta, gutxienez 16 geraleku izango ditu.

TRANBIA | DEBAGOIENENKO TRANBIAREN JENDAURREKO AZKENENKO BI ERAKUSKETAK DAUDE IKUSGAI EGUNOTAN

Lanak noiz hasiko zain dira ibarreko udal ordezkariak gehienak

Tranbiaren Eskoriatzako eta Oñatiko ibilbideak ikusgai daude egunotan. Ibarreko beste herriak aurkeztutako alegazioen erantzunaren zain dira

Marijo Deogracias

Arrasateko alkate Ignacio Lakuntzak, egubakoitzean Aretxabaletan egin zen AP-laren ekitaldian adierazi zigunez, "garrantzitsua lanak hastea da. Ezin dugu aukera galdu, gure atzetik zain direlako beste batzuk ere eta, dagoeneko, Gasteiz aurre hartu digulako". Tranbiaren gainean galdetuta egin zizkigun Lakun-

tzak adierazpenok. Horren haritik, Nuria Lopez de Gereñu, Garraio eta Herrilan sailburuak, tranbiak Oñatin izango duen ibilbidearen aurkezpen egunean, zera adierazi zion Goienari: "Datak ematea oso polita izango litzateke gaur, jendea pozik egoteko. Nik espero dut 2007an lanean aritzea, baina orain arte egin dugun bezala egingo dugu gero ere. Hau da, Oñatiko eta

Eskoriatzako Udalek eskatu digute alegazioak aurkezteko epea luzatzea eta horrela egin dugu. Hori aberasgarria da, baina epean hilabeteko atzerapena esan gura du horrek".

Bi herri horietan oraintxe daude ikusgai tranbiaren ibilbideak eta alegazioak aurkezteko epea zabalik dute. Hala ere, badira aurretik aurkeztutako alegazioen zain daudenak ere. Aretxabaletan, esaterako, hil honen amaieran jakingo dute Durana kalea zeharkatzeari uko egingo dion Jaurlaritzak. Horrela adierazi digu Aretxabaletako alkate Arritxu Olidenek. Bere iritziz, "onartu egingo dute aldaketa-proposamena, herriarekin batera adostutako proposamena izan zela kontuan izanik".

Bergararen kasuan ere, ez dute erantzunik jaso aurkeztutako alegazioak direla eta. Hor-taz, baliteke proiektua uste baino gehiago luzatzea.

"Garrantzitsua lanak hastea da. Ezin dugu aukera galdu"

"Oñatik eta Eskoriatzak eskatu digute alegazioak aurkezteko epea luzatzea"

Tranbia datutan

- **IBILBIDE ETA ADARRAK**
Debagoienezko tranbiak ibilbide bat, Bergara-Aretxabaleta, eta adar bi, Oñati eta Eskoriatza ditu.
- **LUZERA**
15,7 km.
- **GELTOKIAK**
16 geraleku aurreikusten ziren, baina ugaritzeko hainbat eskari egin dira.
- **AURREKONTUA**
90.078.467 euro aurreikusi zituen Jaurlaritzak lehenengo faserako.
- **ALEGAZIOAK**
Herri guztiek aurkeztu dituzte alegazio eta iradokizunak.

DEBAGOIENENKO ETORKIZUNEN GARRAIOBIDEA

• HERRI BAKOITZAK IBILBIDEAREN DAGOKION ZATIARI ALEGAZIOAK AURKEZTEKO AUKERA IZAN DU



ARRASATE. Ignacio Lakuntza alkateak adierazi digunez, “alegaziorik ez zitzaion aurkeztu tranbiaren ibilbideari, baina ospitalean geltokirik ez zenez aurreikusitako iradokizun legez, Gelman dagoen geltokia ospitalean egitea egokiago ikusten genuela adierazi genion Jaurlaritzari. Dena dela, proposena proiektuarekin hasia litzateke, gehiago atzeratu gabe”.



BERGARA. Udalak tranbiaren ibilbideko hainbat puntu Jaurlaritzarekin negoziatu zituen, baina badira beste alderdi batzuek aurkeztutako alegazioak oraindik erantzunik jaso ez dutenak. Bestek beste, Gabiriako estuguneak sortzen dituen arazo teknikoak daude konpontzeko. Kiroldegi inguruan geltokia jartzeko ere eskatu zuten alegazio bidez. Ibargarai kalean (irudian) hainbat aparkaleku galduko dira.



ESKORIATZA. Urtarrilaren 18ra bitartean dago ikusgai tranbiaren Eskoriatzako ibilbide zatia. Alegazioak aurkezteko epea, berriz, otsailaren 9an amaituko da. Eskoriatzako kiroldegi parean izango du tranbiak lehenengo geltokia eta azkenekoak, berriz, HUHEZI baino goraxeago bata eta TESA parean bestea. Kiroldegi parean eta Aranburuzabala kalean hainbat aparkaleku galtzea ekarriko du tranbiak.



ARETXABALETA. Jaurlaritzak Durana kaletik ez pasatzea onartuko balu, “proiektua jendaurrean jarri beharko litzateke, pare bat hila-betez, alegazioak aurkeztu ahal izateko”, azaldu digu Arritxu Oliden Aretxabaletako alkateak. Gainera, eta iradokizun legez, Almen parean geltokia jartzea eskatu diote Jaurlaritzari.



OÑATI. Abenduaren 22an jarri zuten ikusgai tranbiak Oñatin izango duen ibilbidea eta urtarrilaren 23a arte luzatu dute alegazioak aurkezteko epea. 9 geltoki izango ditu tranbiak Oñatin; horietako bat Bidebarrietan, Errementerri plaza parean. Kale honetako hainbat aparkaleku galdu egingo dira tranbiak bidea egiteko.

laster eraikitzeko

**Errioxako Ribas de Tereson
11 etxe atxikiak**

Toloño mendiaren magalean

Labastidatik 4 Km.
Gasteiztik 30 min.
Arrasatetik 60 min.
Donostiatik 90 min.

ikuspegi paregabeak

62
80

informazioa

679 25 19 33



MONIKA BELASTEGI

Izenen katea izeneko jolasarekin hasi zuten ikastaroa parte-hartzaileek.

Zortzi gurasok ekin zioten zapatuan umeekin euskaraz jolas egiteko ikastaroari

Martxoaren 14ra arte, zapaturu, umeekin euskaraz jolas egiteko baliabideak ikasiko dituzte Ana Carpintero irakaslearekin

Monika Belastegi

Arrizuri jauregian batu ziren Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuak antolatu duen jolas, kanta eta ipuin ikastaroan izena eman duten zortzi lagunak. Sei bergararrak dira; bat elgetarra eta beste bat Arrasatekoa. Gehienak dira guraso (sei), baina bada go logopeda bat eta haur hezkuntzako irakasle bat ere bai. Izan ere, ikastaroa ez dago gurasoei bakarrik zuzenduta, haurrekin hartu emana duten pertsoneri ere zabalik dago.

Hainbat helburu ditu ikastaroak, baina nagusiak dira gurasoei seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea eta jarduera horren bitartez euren arteko harreman afektiboa sendotzea, Ana Carpintero ikastaroko irakaslearen esanetan.

GURASOAK POZIK

Eurak ere umeak balira bezala jolas egiten hasi zuten zortzi lagunek ikastaroa, pozik eta ilusio handiz, gainera. Irakasleak ere aitortu zuen oso polita dela gurasoekin halako ikastaro baten lan egitea, oso motibatuta joaten direlako. Izan ere, parte-hartzaile guztiek dute garbi seme-alabekin

euskaraz egin nahi dutela jolas, eta umeok adin ezberdinekoak diren arren, ikastaroan adin ezberdin horietara egokitu egingo dituzte jolasak.

Berrikuntzak ere baditu aurretik ikastaroak: batetik, zapatuan

dela, aurreko urteetan (1999tik antolatzen dute) astegunetan egin izan dute-eta; bestetik, jolas eta kantuen ikastaroari ipuinena gehitu diotela (orain arte bi ikastaro bereizi ziren); eta hirugarren berrikuntza da ikastaroaren azkeneko saioa seme-alabekin batera egingo dutela. Azken horri dagokionez, Ana Carpinterok azaldu zigun Oñatin egin zutela froga eta oso esperientzia polita izan zela.

• ZERGATIK ZATOZ IKASTARORA?



EGUZKIÑE
ODRIOZOLA |
ELGETA



JOSE CARLOS
BASAURI |
BERGARA



AINTZANE
ARANA |
BERGARA

“Haur hezkuntzako irakaslea naiz eta ikastarora etorri naiz gauza gehiago ikasi eta gero eskolako umeekin praktikan jartzeko asmoarekin”.

“Hiru urteko haurra daukat eta nire gogoa da jolasak, kantuek eta ipuinak euskaraz ikastea gero harekin jolas egiteko. Ipuinak oso gustuko ditu, gainera”.

“Ikastolan ikasitakoa naizen arren, jolasak, batik bat, ez dakizkit euskaraz. Hemen jolasok euskaraz ikasi nahi ditut bost eta bi urteko seme-alabekin egiteko”.

Berriz utzi behar izan dute gaztetxea Oñatin

Hiru asteren ostean, bertan behera utzi behar izan du okupazio saioa

Jon Berezibar

Zaharren egoitza parean dagoen eraikin bat erabili dute Gaztetxe moduan, San Martin auzoan, eta hiru aste egin dituzte bertan. Gabonetan okupatu zuten Martzelino Zelaia kalean dagoen eraikina, baina asanbladako kideek adierazitakoaren arabera, “Udalaren presioa dela-eta” hustu dute oraingo asteburuan Oñatiko gaztetxea.

Hitzaldi batekin eta herriko taldeek egindako kontzertuarekin amaitu zuten asanbladakoek laugarren okupazio saialdi hau.

SALAKETA JARTZEKOTAN

Okupatu bezain laster ipini ziren harremanetan asanbladako ordezkariak eraikinaren jabearekin. Etxea gaztetxe bihurtzeko asmoa jakinarazi zioten orduan jabeari eta honek “grazia handiegirik ez ziola egiten, baina salaketarik ez zuela ipiniko” adierazi zien gazteei orduan, euren esanetan.

Tartean, baina, “Udala ibili da jabeari salaketa ipintzeko presioa egiten”, asanbladako kideen esanetan, baina ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ezin izan du hori ziurtatu. Azkenean, jabea salaketa jartzekoan dela-eta, egubakoitzean agur-festa egin zuten gazteek. Eraikina egoera onean zegoen, aparejadoreei deituzieten-eta hori baieztatzeko. Arazorik ez ezan bertan geratzeko asmoa zeukaten. Oraingo Gazte Asanbladak ez du salaketa ekintzarik iragarri.



OIHANA ELORTZA

Martzelino Zelaia kalean egin zuten okupazioa orain hiru aste.

Bihar San Anton eguna ospatuko dute Bergaran

M.B.

San Anton eguna ospatuko dute bihar, martitzena, izen bera daraman Bergarako auzoan. 09:30ean auzoko anaideek bileraz izango dute. 10:30ean, berriz, San Anton ermitara igoera egingo dute eta eskaintza egingo diote santuari, eta 11:00etan,

meza nagusia egongo da. Ondoren, salda, txorizoa eta ardoa egongo da nahi duen guztia-erendako.

Asteburuan ere egon dira hainbat ekitaldi San Anton jaien harira. Zapatuan, esaterako, afaria egin zuten auzokoek Zubiberrin, eta domekan, umeendako jolasak egon ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Kaskara jokoan ibili ziren neska-mutikoak atzo, San Anton jaien barruan.

AP-1 AUTOBIDEAREN AZKENEKO ZATIA | EGUENEAN JARRI ZUTEN, ARBIZELAIN, ESKORIATZARAINOKO ERREPIDEAREN LEHENENGO HARRIA

Hasi dira AP-1 autobidearen azkeneko zatiko lanak Aretxabaletan

Legegintzaldia hasi orduko jarritako helburuak bete dituztela adierazi zuen Glez. de Txabarrik egunean Leintz bailarako alkateen aurrean

Marijo Deogracias

“Egina dago. Legegintzaldi hasieran jarritako helburuak bete ditugu. Orain, lanen ardura, zuena da”, esan zien Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik Arbizelaira batutako eraikuntza enpresetako ordezkari. Hantxe jarri zuten, diputatu nagusiak eta Aretxabaleta eta Arrasateko alkateek, Debagoiena zeharkatzen duen AP-1 autobidearen lanen azkeneko faseko lehenengo harria.

DISKURTSO GOGORRA

Hala ere, ez zen erabateko mezu baikorra izan diputatu nagusiak zabaldu nahi izan zuena. Ez zituen ahaztu autobidearen kontra agertu diren herritarrek eta haiei zuzendu zen esanez, “deigarria da minorista batzuek, Debagoiengan eta progresoren izenean, XIX. mendean Norteko Ferrokarrilaren kontra karlista zaharrek ziotena esatea. Sektorre marjinala eta gutxiengoa dira, baina karlista zaharrek erabili zuten diskurtso berarekin dabilta gaur egun ere”. Ondoren, Aretxabaleta eta Arrasateko Udalen laguntza eskertu nahi izan zuen

diputatu nagusiak eta azpimarratu zuen “legegintzaldi hau izan da Gipuzkoako Foru Aldundiarendako errepide Km gehien zabaldu dituen legegintzaldia eta autobide km gehien esleitu den legegintzaldia. Gainera, Debagoiengan inoiz egin den inbertsiorik handiena egin da, eta ez bakarrik errepideetan, errekarren garbiketaren ere sekulakoak eta bi egiten ari gara eta”.

Nestor Arana Bidegiko zuzendari nagusiak adierazi zuenez, “AP-1 autobidea ibilbide luzeko zirkulazioaren alternatiba izango da eta zirkulazioaren hainbat arazo konponduko ditu”.

Eskoriatzaraino

- **Aurrekontua:** 106 milioi euro.
- **Luzeera:** 6,3 km.
- **Tunelak:** Apotzaga (330 m.) Izurrieta (260 m.)
- **Zubiak:** Basagoiti (250 m.) Arbizelai (560 m.) Gurutzetxiki (710 m.)
- **Irekiera:** 2008ko urtarrilaren lehen.



Arritxu Olidenek, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik eta Nestor Aranak jarri zuten lehenengo harria.

• ZUBIRIK LUZEENA EGINGO DUTE ZATI HORRETAN



INGENIARITZA OBRA GALANTA. Eskoriatzarainoko zatiak baditu hainbat zailtasun eta egueneko aurkezpenean lanen ingeniariak eman zituen xehetasunak. Arbizelaiako biaduktua (560 metro luze) egiteko orduan erdiko zutabea eraikitzen hasiko dira: 140 metroko zutabea, Deba ibaiaren gainean. Zubia metal eta hormigoizkoa izango da.

Esandakoa

“Eskualde honetan badira XIX. mendeko karlista zaharrek defendatzen zutena dioten talde marjinalak”

JOXE JOAN GLEZ. DE TXABARRI |
DIPUTATU NAGUSIA

“AP-1 amaituta, Irundik Gasteizera hainbat aukera egongo dira eta hainbat arazo desagertuko dira”

NESTOR ARANA |
BIDEGI-KO ZUZENDARIA

Antzuolak ere sinatu du Bizigune

Monika Belastegi

Herrian dauden etxebizitza hutsak prezio babestuetan errentan emateko Bizigune programa sinatu zuten Antzuolako Udalak, Suradesak eta Jaurlaritzak egunean. Ekitaldian parte hartu zuten Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak, Luis Laskurain Suradesako gerenteak, Jabier Madrazo sailburuak, Roberto Cacho Bizigune programaren

zuzendariak eta Luis de Oza Bizigune programako teknikariak.

141 ETXE HUTSIK

Erroldaren arabera, 141 etxebizitza daude hutsik Antzuolan. Bestalde, Etxebiden izena emanda dutenetatik, 69k errentan hartzeko etxebizitza nahi dute.

Bizigune programaren gainean informazioa eskuratu nahi dutenek udaletxera jo dezakete astelehenetan, 10:30-11:30.



Luis Laskurain, Jose Angel Zabalo eta Javier Madrazo sinatze ekitaldian.



JULEN IRIONDO

Irudian Aramaioko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariak Arexolan egindako lanak ikusten.

Arexola auzoan zoladura berria inauguratu dute

Oso hondatuta zegoen Aramaioko auzoko zoladura. Arabako Foru Aldundiko ordezkariak inauguratu zuten egubakoitzean

M.B.

Bukatu dituzte Aramaion Arexola auzoko lanak, eta baita egubakoitzean inauguratu ere. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Isabel Fernandez de Castillo Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioa diputatua, Mertxe Mondragon Aramaioko alkatea, eta baita Agustin Arrizabalaga Arexolako auzo-alkatea ere.

2002 eta 2003 urteetan horniketa eta saneamendu sareak

berritzeko obrak bukatu zituzten Aramaioko Arexola auzoan; airetik zihozten kableak eta gas sarea lurperatu zituzten, baina lan horien ondorioz, zoladura erabat hondatuta geratu

Zoladura berria jartzeaz gain, plaza handitu egin dute

zen. Orain kaleak eta espaloiak hormigoiz zolatu dituzte, urak jasotzeko sareak jarri dituzte, eta plaza handitu egin dute. Elizara iristeko eskailerak ipini dituzte eta ondoko lurrari eusteko horma eraiki dute, ikuspena erraztuz eta segurtasuna handituz. Egokitze lanen aurrekontu osoa 226.000 eurokoa izan da.

Auzo-alkate Agustin Arrizabalagaren esanetan, pozik daude auzoak hartu duen itxurarekin. Foru diputatuari dagokionez, esan zuen lanak txukun geratu direla, baina garrantzitsua dela "ur hornikuntza, saneamendu lanak, eta argia eta gasa lurperatzea, azken hori batez ere".

• ANTZUOLAKO BUZTINZURI KALEKO LANAK AMAITZEAR DAUDE



GOIENKARIA

LANAK GAUR AMAITUKO DITUZTE ETA ASTE AMAIERAN IREKIKO DUTE KALEA

Buztinzuriko zoru berria aste amaieran zabalduko dute. Eguen edo egubakoitzean zoru berria zapaltzeko moduan egongo da. Buztinzuriko zoru berria lehenago Kalegoiko zati baten jarritakoaren berdina da. Hurrengo, herriko plazan hasiko dituzte urbanizatzeko lanak eta, badirudi, erreka bistaratzeko obrak ere orduan egingo direla. Buztinzuriko lanak bi hilabetez luzatu dira.

'Zinea orain' aldarrikapena egiteko banderatzokak eskegi dituzte bergararrek

Zapatuan saldu zituzten balkoietan eskegitzeko banderatzokak. Eguenean batzarra dago kultura etxean, 19:30ean

Marijo Deogracias

Joan zen urteaz geroztik ez dago zinemarik Bergaran. Harrezkerro, herritar talde bat dabil, zinema izateko eskubidea aldarrikatzen. Hainbat ekintza egin dituzte orain arte eta herrian dagoen arazoa bistaratzeko, balkoietan eskegitzeko banderatzokak jarri dituzte salgai. Zapatuan azoka aurrean, lehenengo, eta Domingo Irala kalean, gero, 3 eurotan saldu zituzten *Zinea orain* dioten banderatzokak. Zuriak eta beltzak egin dituzte, eta dagoeneko eskegi dituzte bergarar batzuek euren etxeetako balkoi eta leihoetan.

Banderatzokak, zapatuan kalean salgai jarri zituzten arren, Bergarako tabernetan erosteko aukera ere badago.

ASTEON BI BATZAR

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu digutenez, eguaztenean Victoriano Gallastegi alkatearekin batzarra egitekoak dira. "Jakin badakigu, ofizialki ez bada ere, seminarioaren proiektuaren txostena negatiboa izan dela. Gainera, ez da batere leku aproposa zinema aretoa han egokitzeko; zutabeak ditu erdialdean eta erretoa ere ondare legez izendatuta dago. Hala ere, badakigu Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,5 milioi euro onartu dizkiola Bergarako Udaleri herriko zinemari irtenbidea emateko. Hortaz, aukera hori ezin du Udalak galdu. Guk eskatzen duguna zera da: behin betiko zinema aretoa izan arte, behin behineko zinema bat izateko aukera bideratzea", azaldu digute taldeko kideek. "Zabaltegi aukera ere erabat baztertua geratu da, hortaz, beste irtenbide bat bilatu beharko da, lehenbailehen". Bestalde, eguenerako batzar irekia deitu dute kultura etxean. "Ahalik eta herritar gehien batzea litzateke asmoa", diote bultzatzaileek. Batzarra eguenean, kultura etxean izango dute, arratsaldeko 7:30ean.

Eguaztenean Bergarako alkatearekin elkartzekoak dira zinemaren aldekoak



M.D.

Zapatuan jarri zituzten salgai, azoka parean, balkoiatarako banderatzokak.

ESKAIOLAZKO DEKORAZIOA

J. GIL

Artekale 20 - 3

Tel.: 615 74 40 95

20570 BERGARA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria

Durana 8

Tel.: 943 79 10 96

ARETXABALETAKO

Irratian entzun zuen duela lau urte udako oporretan ume sahararrak etxean hartzeko elkarte baten deia. Deitu, eta ordutik udaro ekartzen ditu bi anaia, txandaka,

Bergarara. Huraxe izan zen Elsak sahararrekin izandako lehenengo harremana, eta orain, saharar herriaren alde lan egiten duen Bubisher elkarte

lehendakaria da. Duela bizpahiru hilabete sortu zuten berak eta bera bezala saharar herriarenganako kezka duten beste dozena bat bergarar inguruk.

ELSA MANSO | BERGARAKO BUBISHER ELKARTEKO LEHENDAKARIA

“Janari batzea eskoletan egitea garrantzitsua da umeek sahararren egoera ezagut dezaten”

Monika Belastegi

Zer da Bubisher elkarte?

Herri sahararren subiranotasunaren aldeko Bergarako elkarte da Bubisher.

Nortzuk osatu duzue elkartea?

Hamalau-hamabost bat pertsonak osatzen dugu gaur egun. Baina nahi duenarendako atear irekita ditugula ere esan behar dut. Jendea batu eta elkartea sortzeko abiapuntua janaria batzeko kanpaina izan da, bereziki. Duela bost urte hasi ginen herri-tar talde bat horretan. Baina horri udan ume sahararrak etxean hartu izan dituzten herritar-rak batu behar zaizkio. Umeak etxean hartuz gero, nahi gabe, inplikatzeko zoz. Hala, bi multzok batu egin gara, batekoak zein besteokak, eta elkarte bat sortu dugu duela hilabete batzuk.

Izena, Bubisher, apropos aukeratu duzue; izan ere esanahi berezia dauka.

Txoritxo bat da Bubisher. Noiz edo noiz Saharako desertuko haimetara inguratzen den txoria da eta sahararrek diote, agertzen denetan zorte ona eta itxaropena ekartzen duela. Hori horrela, pentsatu genuen izen egokia zela, egunen baten independentzia lortuko dutelako itxaropenarekin.

Zein da Bubisher elkartearen helburua?

Hainbat ditu. Lehen esan dudana bezala, elkartearen abiapuntua janari batzea izan zen. Eta horixe da, orain ere, elkartearen zereginetako bat; janari batzea koordinatzea, hain justu. Aurtengo kanpaina bukatzeaz dago, gainera, eta horren ondoren, martxo aldera, *Oporrak bakean* proiektuari ekingo diogu; udako oporretan ume sahararrak etxean hartzeko deialdia egiteari.

Bergaran Bubisher egoteak ahalbidetu egingo du umeak etxean hartu nahi dituzten familiek gestioak Bergaran bertan egin ahal izatea, orain arte ez bezala.

Bai, orain arte beste herri batzuetako elkarten bidez ekarri behar izan ditugu umeak Bergarara, hemen elkarerik ez zegoelako. Elkarteek dagokien Udalarekin batera eta Frente Polisarioaren bitartez ekartzen dituzte umeak, eta guk ere hala jardun beharoko dugu aurtengo.

Lehenengo aldia izango da guretzat eta jarraitu beharreko urrats guztiak zein diren zehatz jakin behar dugu lehenik eta behin. Arrasaten ere badago sahararren alde egiten duen elkarte bat eta haiekin jarriko gara harremanetan.

Bubisher eta Arrasateko Nubi zaudete ibarrean.

Bai. Dena den, ibarreko beste herri batzuetako familiek ere hartu izan dituzte umeak etxean. Eta aurtengo udan umeak hartze-

ko interesa duenak Nubi edo Bubiher elkartearekin harremanetan jarri baino ez du egin behar. **Janaria eta bestelako gaiak batzeko kanpaina bukatzeaz dela aipatu duzu. Nola doa?**

Bai, ibarreko herri batzuetan pixka bat lehenago eta beste batzuetan beranduago, baina oro har, asteon bukatuko da. Orain, batutako guztia antolatu eta kaxetan sartzeko geratzen zaigu, otsailaren 12an Bilbotik aterako den karabanarako guztia prest izateko. Bestalde, ondo doa batzea, baina zenbat batu den datorren aste-ara arte ez dugu jakingo.

Ikastetxeetan ere egiten da janari batzea eta hori oso garrantzitsua da umeak inplikatzeko modu bat delako; sahararrek bizi duten egoera ezagut dezaten modu bat delako eta jabetzen joan daitezkeen mundu guztia ez dela horren ondo bizi.

Asmo honekin, umeen kontzientziaziorako; beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzue.

Aurreko astean hasi ginen ikastetxeetan barrena adin ezberdinetako ikasleei hitzaldiak ematen, bideoak, ipuin kontalariak ere egon dira, tearen ohitura erakutsi diegu...

Modu horretan erakutsi nahi zaie neska-mutikoei badela herri bat ez dena dagokion lekuan bizi, errefuxiatuendako kanpamenduetan baizik, 30 urtez daudela egoera horretan, laguntza behar dutela... Hala, neska-mutiko horiek nagusitzen direnean –hau ez da eta goizetik gauera konponduko den kontua–, errealitate hori ezagutuko dute.

Eta nagusiago zer nolako kontzientzia maila dugu?

Arazoa politikoa eta ekonomikoa da, Sahara oso herrialde aberatsa delako, eta irtenbidea agintarien aldetik etorri behar da.



MONIKA BELASTEGI

Elsa Manso, Bubisher elkartearen lehendakaria.

Guk egin ahal duguna da kontzientziatu sahararrena dela bere herrikeria; 30 urte daramatzala horrela eta okupatutako lurraldeetan Mohamed erregeak erabateko inpunitatea duela; familiak banatuta bizi direla urteetan elkar ikusi barik, zati bat okupatutako lurraldeetan dagoelako eta beste errefuxiatuen kanpamendue-

tan... Esan bezala, Mohamed erregeak inpunitate osoa du eta Espainiako Gobernuak erabateko erantzukizuna dauka horren aurrean. Espainiako Gobernuak koldarra da ez duelako Maroko batera presionatzen.

Hala, horren guztiaren aurrean guk egin dezakeguna da kontzientziazio lana, ahal dugun guztian lagunduz.

“Saharako desertuko haimetara hurbiltzen den txoria da Bubisher; zorte ona eta itxaropena ekartzen ditu”

“Bergaran elkartea sortu izanak aukera ematen digu udan ume sahararrak ekartzeko eskariak bertan kudeatzeko”

Umeak etxean hartzeko deialdia martxo aldera

Saharrendako janaria batzeko kanpaina bukatzeaz da. Egun bateko edo biko gorabeherarekin –herriaren arabera–, datorren asteburuan emango zaio amaiera. Horren ondoren, batutako sailkatu, kutxetan gorde eta guztia prest egon behar da otsailaren 12an Bilbotik abiatuko den karabanarako. Goiz da oraindik aurtengo kanpainen balorazioa egiteko, baina Elsa Mansok esan digunez ondo doa, “nahiz eta datu zehatzak janari guztia batuta egon arte ezin eman”.

Elsa Mansok gehitu duenez, horren ostean, martxo aldera, *Oporrak bakean* kanpainen deialdia egiten hasiko dira, hau da, udako oporretan neska-mutikoak etxean hartzeko deialdia. Uztailean abuztuko egonaldiak izaten dira.

Etxean umeren bat hartzen dutenek, trukean, neska-mutikoren familiarekin, haren etxean, bospasei egun igarotzeko aukera izaten du. Alboko irudian, ibarreko hainbat lagunek Konstituzioko zubian egindako egonaldi irudia.



Albiste izango da

ARRASATE | PROBAN EGONGO DA BI HILABETEZ

Atxabalperainoko linea berria inauguratuko du gaur urbanoak

Urbano zerbitzuak Gesalibar auzoraino joango den linea berria inauguratuko du gaur, astelehena. Proba moduan jarri dute eta bi hilabetez egongo da horrela, hau da, martxo erdira arte. Zerbitzuak ibilbide bakarra egingo du: 16:45ean abiatuko da Garibai etorbideetik eta geldialdiak egingo ditu Arimazubin eta Garagartzan. Billeteak euro bat balioko du eta bonuak, berriz, 0,58 euro.

Bestalde, autobus urbanoen zerbitzuaren prezioa igo egingo da gaurtik aurrera. Hala, billete arruntak euro bat balioko du eta bonuak, 0,58 euro.

ELGETA | OTSAIL AMAIERA ARTE

Espaloia Kafe Antzokiaren bazkietza kanpaina abian da

Urte berriarekin batera, bazkietza kanpaina hasi du Espaloia Kafe Antzokiak. Banako zein familia bonua egiteko aukera dago. Bazkietza arrunta 35 euro da (15 euro umeen kasuan) eta familia bonua, berriz, 70 euro (seme-alabena doan).

Bazkideek honako izango dituzte: Espaloiak antolatutako ekintza guztietan %15eko beherapena, eguazteneroko zinekluberako sarrera doan, domeketako familia zinerako %50eko deskontua, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidetzan beherapena eta kultura egitaraua etxean jasoko du bazkideak.

Bazkietza kanpaina otsail amaiera arte egongo da zabalik. Informazio gehiago jo www.espaloia.com helbidera.

DEBAGOIENA | HILAREN 19AN ETA 21EAN

Asteon hasiko da denboraldia ibarreko sagardotegietan

Ibarreko sagardotegiek asteon hasiko dute denboraldia. Arrasateko Iturrieta sagardotegian urtarrilaren 19an, ostegunean, hasiko dute. Horretarako, ekitaldi berezia egingo dute 20:00ak aldera eta hantxe izango da Alberto Iñurrategi txotx egiteko. Horren ostean, trikitilariak izango dira giroa alaitzeko. Bergarako Ixaun sagardotegiak berriz, urtarrilaren 21ean, zapatuan, hasiko du denboraldia. Ez dute aparteko ekitaldirik egingo, baina gerturatzen direnek bertako sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izango dute.

Aurreko astean eguaztenean inauguratu zuen denboraldia Astigarragako Petritegi sagardotegiak eta Jose Luis Kortak aurkeztu zuen 2005ak emandako uzta. Hernanin, berriz, atzo domeka zabaldu zuten.

GATZAGA | 11:00ETATIK 12:00ETARA, KZGUNEAN

'Zure seme-alaba babestu' izeneko ikastaroa gaur, gurasoendako

KZgunean *Zure seme-alaba babestu* izeneko ikastaroa emango dute gaur, astelehena, 11:00etatik 12:00etara. Gurasoei zuzendutako ikastaroa da, gaztetxoak edozein webgunetan ibil ez daitezkeen neurriak hartzeko. Hasteko, Interneteko Erabiltzaileen Espainiako Elkarteak gurasoei ematen dizkieten zenbait gomendio azalduko dituzte. Horrekin batera, nabigatzaileak aukera ematen du Interneten zein webgune bisitatu ditugun jakiteko, bisitatutako webguneen artxi- bo historikoa gordetzen duelako. Eta ikastaroan erakutsiko dute hori nola erabili.

ARRASATE | 19:30EAN, HERRIKO PLAZAN

Bai Udalatx taldeak elkarretaratzea deitu du egubakoitzerako

Udalatxeko harrobia dela-eta, elkarretaratzea deitu du egitasmo horren aurkako taldeak. Egubakoitzean izango da, hilak 20, 19:30ean, Herriko plazan. Talde horrek salatu du, besteak beste, asteon egindako prentsurrekoan, duela urtebete eskatu ziotela Ignacio Lakuntza alkateari Udalatx mendiaren barruko harrobiaren gaineko informazioa eta "oraindik ez dugu erantzunik jaso, nahiz eta legeak babestu informazioa eskuratzeko eskubidea".

Bestalde, aldarrikatu zuten halako proiektu erraldoi baten aurrean, "herritarrek euren iritzia emateko eskubidea" izan behar- ko luketela.

Hitzordua



BI ESKI IRTEERA ANTOLATU DITU MURRUKIXO MENDI TALDEAK | Hasiberriendako bat eta eski alpetarra egiteko beste bat daude

Eski denboraldia aprobeztatuta, Aretxabaletako Murrukixo Mendi Taldeak bi eski irteera antolatu ditu, eta biotarako izenemate epea zabalik dago. Irteerak otsailean izango dira.

Alde batetik, hasiberriendako eski irteera dago aukeran, otsailaren 4an eta 5ean, eta izena emateko

ten duen jende kopuruaren arabera erabakiko dute nora joan. Materiala errentan hartzeko aukera egongo da. Bestetik, urtero moduan, eski alpetar irteerara joan zaitezke, otsailaren 18an eta 19an. Edozeinetan izena emateko, joan Murrukixoren lokalera, 19:00etatik 20:00etara bitartean.

ARAMAIO |

• Arabako Basogintza Elkartearen ordezkariak

Udalak esan gura die baserritarrei Arabako Basogintza Elkarteak ordezkariak jarri gura duela Aramaion. Asmoa da hilean behin-edo elkarteak ordezkariak udaletxera etorri eta baserritarrei zerbitzua ematea. Egutegia landu ostean jakinaraziko dute guztia.

• Bainuetxeetara joateko eskaera epea zabalik dago

Bainuetxeetara joateko eskaera egin daiteke hil osoan. Hain zuzen, otsail eta abuztua bitartean joan gura duten pentsiodunek egin dezakete eskaera. Honako agiriak aurkeztu behar dira: Naren fotokopia; hilean jasotzen den pentsioaren zenbateko zehatza; Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia; eta medikuaren txostena. Argibide gehiago, udaletxeko bulegoetan.

ARRASATE |

• Sanatana Dharma yoga eskolako ikastaroak

Sanatana Dharma yoga eskolako ikastaroak ematen ditu honako egunetan: astelehen eta eguaztentean, 09:30-11:00 (Maite da arduraduna, 635 71 06 16 da telefonoa), eta martitzen eta eguaztentean, 18:30-20:00 (interesa dutenek Anari deitu, 943 78 31 26).

BERGARA |

• Txapligu eta Txiskrilabi aisialdi taldeen deia

Txapligu eta Txiskrilabi taldeetan parte hartzeko aukera dago berriz joan den zapatuaz geroztik. Arrizuriagako lokal- etan batzen dira. Ordutegia: Txapligu, 16:00-20:00; Txiskrilabi: 16:00-18:00. Txapligu taldea 9-11 urte bitartekoena da, eta Txiskrilabi, berriz, 12-16 urte bitartekoena.

• San Antonabat eguna ospatuko dute Bergaran

San Antonabat eguna ospatuko dute San Anton auzoan bihar, martitzena.

DEBAGOIENA |

• Almeneko ikasle ohi batzuen ospakizuna

1976an jaio eta Almenen ikasi zutenei dei egiten diete hilaren 21ean, zapatua, elkartzeko, Arbolapetan, 19:00etan. Besteak beste, Amagoia Unanue, Juan Pedro Otadui, Eider Zumalde, Larriz Uribesalgo, Ekaitz Uribe eta abarrek in- kasitakoak batuko dira. Poteo erraldoia egingo dute.

ELGETA |

• Torrealdeko babestutako etxeetan izena emateko

Torrealdeko babestutako etxe- etan izena emateko epea zabalik dago hil osoan. Zozketa maiatz edo ekainean egingo

dute. Izena emateko baldin- tzak jakiteko, udaletxera edo www.elgeta.org webgunera jo.

OÑATI |

• Ugarkaldeko etxebizitzaren zozketako oinarriak ikusgai

Datorren otsailean zozketatu- ko dituzte Ugarkaldeko lehen etxebizitza babestuak. Zozke- taren oinarriak udaletxean daude ikusgai. Urtarrilaren 18an bukatuko da oinarri- eko alegazioak jartzeko epea. Urta- rrilaren 19tik aurrera, eska- tzaileen zerrenda eskatuko dio Udalak Etxebideri.

• Gurasoei zuzendutako hitzaldia Elkar Hezin

Familia barruko komunika- zioa nerabeak daudenean izene- ko hitzaldia izango da hila- ren 19an, eguena, Elkar Hezi ikastetxean (Santa Marinako eraikineko mediatekan), 18:30ean. Eraberri taldeak emango du.

• Dementzien gaineko ikastaroa gaur hasten da

Dementzien eta Alzheimer gai- tzaren inguruko doako ikasta- roa emango du Lahar Elkargo- ak gaur, astelehena, hasi eta 20ra bitartean, kultura etxean, 17:00-20:00. Jaurilaritzak lagun- dutako ikastaroa da, eta matri- kula udalak finantzatzen du. Izena emateko aukera badago oraindik, honako zenbakietan: 943 47 41 82 edo 665 71 86 95.



BERANGO
DEKORAZIOA, SUKALDEAK

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

q u a t r o

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

Kabía

4 URTE
interes barik

Altzariak

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Semaforoak eta biribilguneak

Udalako biribilguneak Arrasate pasealekura egoten den zirkulazioa dela eta, txistu bat iritsi zaigu erredakziora: "Arrasate pasealekuko semaforoak eta Udalako biribilguneak eragiten duten zirkulazioaz kezatu nahiko nuke. Semaforo hori, oinezkoendako den semaforoa, Udalako biribilguneak gertuegi dagoenez, gorriz jartzen denean itzelezko korapiloak sortzen dira Udalako biribilgunean. Semaforoa, oinezkoendako, ezinbestekoa da leku horretan, alde baten ikastetxea eta bestean Eskola Poliktenikoa daudela kontuan izanik, baina kontua da, aurrerago badagoela beste semaforo bat ere, funtzio berarekin, eta leku horretan sortzen diren zirkulazio arazoak saihesteko aukera bat litzatekeela semaforo hori atzeratzea. Soluzio zaila dauka arazoak, badakit, baina osterantzean ondo legoke udaltzainek trafikoa zaintzea biribilgunean ere; izan ere, gidari askok biribilgunera sartzea erabakitzen du irteteko arazoak izango dituela jakinda ere eta, azkenean, norabide guztiak itxita geratzen dira".

• Soberako semaforoak

Elgetako Salbador kalean ahaztuta laga duten semaforoaren kontura iritsi zaigu txistu erredakziora. Dirudienez, Arrasate-ra doan errepidea konpontzeko jarri zituzten bi semaforo, zirkulazioa arautzeko. Lanak amaitu ostean, Salbador kaleko goiko zatiko semaforoa kendu zuten, baina ahaztuta laga dute herritik gertuen dagoen semaforoa. Gure irakurleak dioenez, "dagoeneko soberan dago semaforoa. Ez du zirkulazioa arautzeko balio, norabide bateko semaforoa bakarrik dagoelako; eta bigarren semafororik ez dagoela ez dakienak auto-ilarak eragiten ditu gura barik".

Sarean harrapatuta

Behar duguna erosten dugu merkealdietan?

Hasi dira neguko merkealdiak eta ibarreko denda gehienek dute beherapenen bat. Dendariek diotenez jende asko ari da erosten eta askok merkealdi sasoiari itxaron diote behar duten hori erosteko.

Hala ere, asko dira merkealdietan behar ez dutena erosten dutenak. Behar duguna erosten dugu merkealdietan? Horixe izan da aste honetan *Goiena.net* webgunean jarri duten eztabaida. Hemen iritzi batzuk.

BEHARRAGATIK EZ, BAINA EROSI DUT

Nik ez dut beharrarengatik erosten eta aurtent kamiseta bat erosi dut. Ez dut kamiseta beharrik, baina izugarriko pagotxa zen eta jantziko dut orain edo gero.

Lola Mento / www.goiena.net

MERKEALDIETAN EROSTEA GUSTUKO DUT

Ni kontsumitzailea naiz eta onartu egiten dut. Bai, erostea gustatzen zait eta aurtengo neguko beherapenetan ere izan naiz erosketak egiten. Behar ez ditudan jertse bat, bota batzuk eta bi praka pare erosi ditut.

Kontsumitzaile / www.goiena.net

BEHARRA ZEIN DUGUN JAKITEA ZAILA DA

Batzuek behar dutena erosten dute, beste batzuek, ordea, ez. Nik uste zaila dela benetan zer behar dugun jakitea gizarte kontsumista eta materialista honetan. Izan ere, denetik dugu eta ez dut uste arropa behar handia dugunik.

Aurtengo neguko merkealdietan bi praka pare erosi ditut nik, *behar* nituen-eta. Baina, agian, asteburuan *behar* ez ditudan beste tontokeria batzuk erosi ditut, erosketak egitera joango naiz-eta.

Beharra / www.goiena.net

URTEAN ZE HAR EROSTEN DUT BEHAR DUDANA

Neuk urtean zehar erosten dut gustatzen zaidana edo behar dudana, eta kito; eta jende gehienak hori egiten duela uste dut. Bueno, justu merkealdien aurretik zerbait ikusten badut eta gustuko badut, itxaron egiten dut, baina...

Nik uste dut beherapenetara eroen moduan joate hori bukatu egin dela. Eta kontraesana iruditzen zait, gainera, Gabonetan izugarriko gastua egiteko prest

dagoen gizartea gero beherapenen zain egotea benetan dirua zainduko balu bezala.

Praktikoa / www.goiena.net

AURTEN ARGAZKI KAMERA EROSIKO DUT

Nik beti esaten dut ez dudala beherapenetan ezer erosi. Baina beti joaten naiz eta tentazioan erortzen naiz. Normalean behar ez ditudan gauzak erosten ditut. Dena dela aurtengo merkealdiak argazki kamera bat erosteko aprobetxatuko ditut.

Miren / www.goiena.net

KIROLA EGITEKO ARROPA EROSTEN DUT

Niri ez zait gustatzen erosketak egitera joatea. Dena den, merkealdietan kirol arropa eta produktuak erosteko aprobetxatzen dut. Izan ere, oso garestiak dira kirola egiteko zapatilak edota eskia-tzeko taulak.


Jokin / www.goiena.net

KONTSUMITZERA BULTZATZEN GAITUZTE

Merkealdia jendea erostera bultzatzeko asmakizun bat besterik ez da, Gabonak, Aitaren Eguna, Amarena, Maiteminduen Eguna eta beste hainbat moduan. Kontsumitu, kontsumitu eta kontsumitu, ez digute besterik esaten. Lorea / www.goiena.net

www.goiena.net

Benetan behar duguna erosi ohi dugu neguko merkealdietan?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Lan mundua euskaratzeko ahaleginetan hasi da Jaurilaritza. Zer egin beharko da lan mundua euskaratzeko



EGOITZ ITURBE | ELA-KO DEBAGOIENKO ARD.

Administrazioari esaten dioguna da erantzukizuna hartzeko eta koordinatzeko sindikatuekin egiten den lana. Administrazio legez badauka eragiteko ahalmena, hortaz, beste arlo batzutan eragiten duen moduan, euskarren arlo jakin honetan ere neurriak hartzea eskatzen diogu.



ELI PAYROS | BERGARAKO EUSKARA TEK.

Udalan iaz ekin genion lan mundua euskalduntzeko planari. Helburua ahalik eta enpresa gehienetan euskara-planak martxan jartzea da, hori baita arlo hau euskalduntzeko bidea. Pozgarria izan da Jaurilaritzak ildo nagusiztat jotzea lan mundua, denon ahalegina beharrezkoa da eta.



JUAN LUIS AREXOLALEIBA | EMUN KOOP.-EKO LANKIDEA

Prozesua azkartzeko, lan munduan eragiten duten agente guztiak inplikatu eta euren arteko sinergiak lortu behar dira. EMUNi dagokionez, bezeroei zerbaitu ona emateko eta indarrean diren planek arrakasta izateko, buru-belarri ari gara tresnak eta bitartekoak hobetzen.



ANAJE NARBAIZA | ELAY-KO EUSKARA TEK.

1.-Enpresa zuzendaritzek eta langile kolektiboek euskaraz lan egin nahi izatea. Lan eta industria sailak ere laguntzak eskaintzea. 2.-Dakitenei eta ez dakitenei hizkuntza eskubideak errespetatzea. 3.-Gure artean eta ez dakitenekin erabiltzea, beraiek pozteko laguntza modurik onena da eta.



Egunkarietako harribitxiak

ATXILOKETEK GORA EGIN DUTE

Azkeneko bost urteetako atxiloketa kopuru handiena gertatzen ari da Gipuzkoan. Halaxe zioen atzo *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak erreportaje baten. Iaz, hileko batez beste 180 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Hala eta guztiz ere, EAEko atxiloketa tasa baxuena daukan lurraldea da.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-01-15



AIENE ASKO, ETXEKO LAN GUTXI

Esanguratsiak dira Adicaek (Bankuen Erabiltzaileen Elkarte) egindako inkestaren emaitzak. Bankuekin edo kuxekin noizbait arazoak izan dituztela jakinarazi dute galdeketa parte hartu duten lagunen %92k, eta %96k zero eta bost arteko puntuazioa eman diete soilik finantza erakunde zerbitzuei. Bankuen zerbitzuen truke ordaindu beharreko komisioak dira liskar eragile

nagusietakoak. Urtean 176 euro ordaintzen dituzte, batez beste, estatuko erabiltzaileek, eta era horretan finantzatzen dituzte bankuek jardueretako gastuen %90 inguru Adicaek esan duenez. Bankuen eta kuxen eginkizun bakarra da Espainiako Bankuari komisioen berri ematea. Ez dute ez azpiko ezta gaineko mugarik ere. Hori bai, urtero-urtero gora egiten dute.

'Berria'
2006-01-15



Tira, tira...



- Gosea, legenarra, hiesa eta orain hegazti gripea! Eskerrak ez den guganaino iritsi.
- Batek daki. Horrela segiz gero, litekeena da datorren urtean Oilarraren meza ospatzerik ezin izana.

Ripa 'El País' | 2006-1-15

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

EZ DAUDE KETAN

Astero bisitan joaten naizen zahar-etxean taberna bat dute. Batzuek erre egiten baitzuten, ketan egoten zen giroa. Orain aparteko gela bat jarri diete. Han ikusten ditut, isilik. *Ketan egotea* gustura egotea da euskaraz. Erretzaileak ketan daude, baina ez atseginez. Kerik gabe daude tabernakoak, baina ez zoriontsuago.

Anjel Lertxundi
2006-01-15

'Berria'

GANBERA, HERRIAREN GARAIPENA

Euskal Ganberaren kanpainak luze jo zuen. (...) 2001ean, egoitzarik ezean, laborariek Baionako Merkataritza eta Industriako egoitza dotorean sartu eta Euskal Herriko Laborantza Ganberaren I. Biltzarra egin zuten. Geroztik bi jarrera nagusi izan dira auzitan: laborariek jarrera eraikitzailea agertu dute; Estatu frantsesak erasokorra.

Gara
2005-01-15

'Noticias de Gipuzkoa'

EGUN BATEKO LOREA

Sozialistekiko distantzia txikitzeko, PPko agintariek mezu kezagarriak luzatzen dizkiote gizarteari. Gauzak handitu egin behar direla, bada, handitu; gezurrak esan behar direla, bada, esan... Kataluniatik kanpo milioika pertsonak uste dute, esaterako, egia dela Estatutak bukatu egingo duela gazte-lerarekin.

Editoriala
2005-01-15

'Deia'

EUSKAL ZENTSURA

Kiroldegietako ikusleen portaerak nagusitu omen ziren BECeko entzuleetan. Baina epailei eta kirolari alferrei jo ohi zaizkie txistuak kiroldegietan, ez gonbidatuei eta babesleei. Txistuak zuritu dituenik ere izan da, kulturari eta euskarari gutxi laguntzen omen dietelako. (...) Nik dakidala bakarra izan da txistuok salatu dituenak.

Mikel Atxaga
2006-01-15

Zorroztalea

Ezin dela erre?: Erre-ta-erre



Benito Lertxundi Orioko musikariak gaur, egubakoitza, egingo du kontzertua kiroldegian. Emanaldi hori abenduan egitekoa zen, baina gripea harrapatu eta bertan behera utzi behar izan zuen emanaldia.

'Ze Barri?' | 2006-01-13

Jota Jota Arrieta

Benito. Tira, han izan nintzen egubakoitz gauean, kiroldegian. Ikuslegoaren batez besteko adina apur bat bada ere jaisteko (ez ditut asko falta berrogeita hamarretarako). Ez genuen errekorrik apurtu, baina kiroldegia goi-goraino eta gogoraino bete genuen.

Kiroldegiak Bergarako sasi-opil gozoa ematen zuen, errelle-noa alegia. Nik oso gustura irten nuen arren, ezagutzen dut baten bat emanaldia Bergarako beste sasi-opil gozoarekin erlazionatzen duena, tostoiarekin hain zuzen. Esango nuke publikoaren gehiengoa adurra zeriola atera zela. Benito ere bai. Egia esan, ikuskizun landua izan zen, oso. Era berean luzea, oso. Erredios! Erregeek ekarritako sarrerari etekin osoa ateratzeko errepa-

soa emateko bestekoa. Benitok bere erreminta onenarekin (ahotsa) saioari ekin orduko erreparatu nion hark guztiak zuen errekonozimendu itxurari. Berrogei urteko ibilbidearen aitzakian erreberentziak nonahi: publikoak Benitori, Benitok publikoari, publikoak publikoari, Benitok Benitori... Panorama horrekin heldu ginen erreplikapenen merkealdietara. Ematen zuen gau boreala izango genuela, bukaera bakoa. Benitok zenbat ginen galdetu zuen arte. Larregi eta nahasi samarrak kontatzeari ekiteko. Orduantxe hautsi ziren erresistentziak. Huraxe izan zen amaieraren hasiera. Errematea. Eta orduantxe izan nuen gaueko agerkundea, legeak badu bai eragina ohiturengan, ez nuen txiskerorik ikusi jaialdi osoan: ezin bada erre, txiskeroak zertarako?

"Esango nuke publikoaren gehiengoa adurra zeriola atera zela. Benito ere bai. Egia esan, ikuskizun landua izan zen"

"Legeak badu bai eragina ohiturengan, ez nuen txiskerorik ikusi jaialdian: ezin bada erre, txiskeroak zertarako?"

KIROLA

- Eskoriatzako neskek garaipena lortu dute 54-51 Cobaf taldearen aurka | 15
- 42 lagunek hartu dute parte Bergarako San Anton jaietako krosean | 17



Eusebio Novoa
Oñatiko mendizalea
mundu osoan zehar
ibili da azken 23
urteotan | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

UDA

3-1

MUTRIKU

UDA | Eriz, Torres, Erostarbe, Iregi, Armentariz, Arenaza, Cocho (Uribetxeberria, 74. min.), Nuñez, Arriaga (Kepa, 68. min.), Orueña eta Rodríguez (Gonzalez, 72. min.).

Mutriku | Osa, Kerejeta, Bengoetxea (Kaltzakorta, 74. min.), Lopez, Pagoaga, Landaribar, Zubiaurre (Arreitunandia, 65. min.), Basurko, Galdona (Madera, 79. min.), Txurruka (Elezgarai, 65. min.) eta Otxagabia (De la Parra, 72. min.).

Golak | 1-0 Imanolek (16. min.), 2-0 Arriagak (39. min.), 3-0 Oruetak (79. min.), 3-1 Arreitunandiak (83. min.).

Epaila | Iñigo Morales. Ondo aritu zen epaila. Norgehiagoka lasaia izan zen eta ez zuen erabaki zailak hartzeko beharrik izan.

Bestelakoak | Hotz handia zegoen Ibarren baina ohiko jende kopurua bertaratu zen. Partidua hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zen Victoriano Aranburu Aretxabaletako abadearen omenez.

Bikain

Igor Arriaga

Neurketa oso ona egin zuen Aretxabaletako aurrelariak, batez ere lehenengo 45 minutuetan. Lehenengo gola bideratu zuen eta bigarrena berak egin zuen.

Kaskar

Mutrikuarren defentsa

Sailkapeneko lehenengo postuetan daude mutrikuarrak, talde ona da hortaz. UDAko jokalariek, ordea, ondo zulatu zuten kostaldekoen defentsa gehien bat bi hegaletan.

Esandakoak

“Merezitako garaipena izan dela uste dut. Gogor entrenatu dugu aste honetan eta partidu ona egin dugu gaur”.

IÑAKI URIBETXE BARRIA | UDAKO JOKALARIA

“Pozik nago taldeak gaur egindako lanarekin. Zortzi baja genituen eta aurrera atera dugu partidua”.

FELIX RECIO | UDAKO ENTRENATZAILEA



JOSETXO ARANTZABAL

Iker Oruetak ere partidu ona egin zuen. Behin baino gehiagotan hurbildu zen aurkariaren atera eta berak egin zuen UDAREN azken gola.

FUTBOLA | ETXEKO LANAK ONDO EGINDA ZELAIRATU ZIREN ARETXABALETAKOAK ATZO, DOMEKA

Mutrikuko entrenatzaileak zoriondu egin zuen UDA

Aretxabaletakoak baloiaren jabe izan ziren, aukerak sortu zituzten behin eta berriz eta hiru gol egin zizkieten Mutrikuko jokalariei

Larraitz Zeberio

Pozik dago UDAko entrenatzaile Felix Recio taldeak atzo egindako partiduekin. “Gabon aurretik haserretu egin behar izan nuen mutilak arreta galtzen ari zirela konturatu nintzelako. Bizpahiru oihu garaiz egitea komeni izaten da batzuetan”.

UDAK neurketa oso ona egin zuen Mutrikuren aurka. Hasierako 15 minutuak nahasiak izan baziren ere laster hartu zuten neurketaren lema eta zentzuz

jokatzen ikusi genituen. Ondo kokatu ziren zelaian, baloiaren jabe izan ziren eta aukerak behin eta berriz sortu zituzten golak iritsi ziren arte.

Partidu amaieran Mutriku taldeko entrenatzaile Iker Dorronsorok zorionak eman zizkion Felix Reciori. “Preferente mailan urteak daramatzala esan dit”, azaldu digu Felix Recio, “eta gutxitan ikusi duela horrelako maila erakutsi duen talderik”. Argi dago etxeko lanak ondo eginda zelairatu zela UDA atzokoan.

LEHEN ZATIAN BI GOL

“Gogor entrenatu dugu aste honetan”, esan zigun partidu amaieran UDAko jokalaria Iñaki Uribetxebarriak. “Lortutako garaipena merezitakoa dela uste dut.

UDAK bi goleko aldearekin eman zion hasiera bigarren zatian

Defentsa akats batean iritsi zen Mutrikuko taldearen tanto bakarra

Nire iritziz etxean egin dugun partidurik onena izan da gaurkoa”.

Ez zaio arrazoirik falta Iñakiri. Behin eta berriz hurbildu ziren etxekoak Mutrikuko atezainaren atera eta 16. minutuan iritsi zen lehenengo gola. Imanol Rodríguezek egin zuen Igor Arriagaren pase bikain baten ondoren.

Igorrek egin zuen bigarren tantoa ate aurrera bakarrik iritsita. Atezainaren buru gainetik pasa zen baloia.

Atsedenen ostean lasaia hartu zituzten gauzak UDAkoek baina hirugarren gola ere egin zuten. Iker Oruetak egin zuen bakarrik atezainaren aurrean.

Defentsa akats batean iritsi zen mutrikuarren tanto bakarra. Emaizta honekin sailkapeneko goiko postuetan beste astebetetz mantentzea lortu du UDAk.

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK



JOSETXO ARANTZABAL

Lehen gol aukera Mondrak sortu zuen Julen Herizen bidez, baina baloiak langa jo zuen.

Bi penalti adierazi zituen epaileak Hernaniren alde

MONDRA
1-1
HERNANI

Mondra | Ander, Andoni (Loiti, 46. min.), Arkaitz (Gotzon, 58. min.), Mercader, Laspiur, Ruben (Argider, 39. min.), Alzola (Aritz, 82. min.), Ekain, Heriz, Lopez (J. Garmendia, 75. min.) eta Keixi.

Hernani | Julen, Urban, Kijera, Jokin, Xorondo, Javi Gomez, Urko (Mikel Txiki, 89. min.), Gorka (Giraldo, 55. min.), Goia, Olaia eta Mikel.

Golak: 1-0, Keixik faltaz (75. min.), 1-1, Urbanez penatiz (87. min.).

Epailea: Medina jauna. Lan txarra egin zuen. Erabaki gehienak Mondraren aurkakoak izan ziren, batez ere amaieran.

Puntu banarekin konformatu behar izan zuten zapatuan bai Mondrako jokalariek zein Hernanikoek. Bigarren zatira arte itxaron behar izan genuen norgehiagokako bi golak ikusteko. Partiduko protagonista garbia, ordea, Medina jauna epailea izan zen.

LEHEN ZATIAN EZER GUTXI
Ezer gutxi ikusteko aukera izan zen partiduko lehen 45 minutuetan. Mondrak zein Hernanik ez zuten joko handirik erakutsi eta aukera oso gutxi sortu zituzten bai bata zein besteak.

Etxeko taldeak gola egiteko aukera bat izan zuen neurrakaren 10. minutuan. Julen Herizek jaurtiketa oso polita egin zuen

Hernaniko taldearen atera, baina baloiak langa jo zuen eta ez zen barrura sartu.

HERNANIARRENDAKO BI PENALTI AUKERAN

Antzekoak izan ziren bigarren zatiko lehen minutuak, gol aukera gutxikoak. 75. minutuan, ordea, Keixik Mondraren gola sartu zuen faltaz. Gol oso polita izan zen, gainera.

Partidua horrela bukatuko zela ematen zuenean Medina epaileak bi penalti adierazi zituen jarraian Hernanikoen alde. Anderrrek ondo gelditu zuen lehenengo jaurtiketa, baina ez zuen bigarrenengo oztopatzerik izan eta baloia sareetara joan zen zuzenean, berdinketa ekarriz.

Aloñak etxetik kanpo sei gol egin zituzten Oriokori

ORIOKO
3-6
ALOÑA MENDI

Arantzazu Ezkibel

Aloñak sailkapenean duen egoera zorte oneko bolada bat baino gehiago dela erakutsi zuten Oruearen mutilek zapatuan Orion. Oñatiarrak partidua jabe izan

ziren momentu oro, gol aukera mordoa eginez.

Hala ere, partiduko lehenengo gola etxekoentzat izan zen. Merituri egin gabe, aurretik jarri ziren etxekoak. Aloñak bere jokoa egiten jarraitu zuen; horrela, golak berehala etorri ziren. Atsedenera 1-2 iritsi ziren, Aramendi eta Unai Arregiren golek.

Bigarren zatian Aloñak penaltia izan zuen kontra. Hala ere, partidua aurrera ateratzeko ez zuen arazorik izan. Golegileak Jon Astigarraga, Jokin Garai eta Iñigo Arregi (2 gol) izan ziren.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	SAILKAPENA
Orioko-Aloña Mendi 3-6	Puntuak J I G B GA GK
Pasaia-Idiazabal 3-0	1. Real Union 42 20 13 4 3 40 21
Touring-Beti Gazte 0-0	2. Aloña Mendi 41 20 13 5 2 43 26
UDA-Mutriku 3-1	3. Ordizia 38 20 12 6 2 32 19
Zestoa-Ordizia 1-2	4. Pasaia 37 20 9 1 10 37 22
Allerru-Zarautz 2-2	5. Trintxerpe 37 20 11 5 4 36 28
Mondra-Hernani 1-1	6. UDA 36 20 10 4 6 40 20
Berio-Trintxerpe 4-0	7. Mondra 31 20 9 7 4 34 24
Irun 1902-Hondarribia 2-3	8. Mutriku 30 20 9 8 3 28 29
Anaitasuna-Real Union 3-1	9. Zarautz 30 20 8 6 6 37 24
HURRENGOAK	10. Touring 28 20 8 8 4 28 28
Real Union-Orioko	11. Anaitasuna 25 20 7 9 4 21 26
Aloña Mendi-Pasaia	12. Berio 25 20 6 7 7 29 29
Idiazabal-Touring	13. Zestoa 24 20 6 8 6 26 28
Beti Gazte-UDA	14. Hernani 24 20 6 8 6 23 30
Mutriku-Zestoa	15. Hondarribia 23 20 6 9 5 25 34
Ordizia-Allerru	16. Idiazabal 21 20 4 7 9 23 34
Zarautz-Mondra	17. Orioko 17 20 3 9 8 24 43
Hernani-Berio	18. Beti Gazte 15 20 3 11 6 21 36
Trintxerpe-Irun 1902	19. Irun 1902 15 20 3 11 6 23 39
Hondarribia-Anaitasuna	20. Allerru 9 20 2 15 3 14 44

1. erregionala

Meritu handirik egin gabe, Bergarak 4 gol egin zituen

AMARA BERRI
0-4
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Partidu txarra izan zen zapatuan Bergara eta Amara Berririk jokatutakoa. Hala ere, mahoneroek etxekoek baino aukera gehiago sortu zituzten eta azkenean 3 puntuak etxera ekartzea lortu

zuten Josu Zubiaren mutilek. Partidua ikustera hurbildu zirenek joko txarra ikusi zuten; bi taldeek baloi luzeak jokatu zituzten, aurrelarien buruak bilatu nahian.

Josu Zubia Bergarako entrenatzaileak adierazi digunez, Donostiako taldeak nahiko joko motela egin zuen. Bergararrak, hori aprobetxatu beharrean, euren jokora moldatu ziren eta futbol txarra egin zuten.

AZKENEAN GOLAK

Lehenengo zatiko 25. minutuan iritsi zen partiduko lehenengo

gola Urteagaren bidez. Atsedenera markagailuan aurretik ziren, beraz, Bergararrak.

Bigarren zatian, gauzak berdintsuak izan ziren bi taldeentzat. Partidu amaierara etxeko taldea motelago iritsi zen eta fisikoki asko egin zuen behera. Bergarak egoera hau aprobetxatu zuen eta azken 10 minutuetan 3 gol egin zituzten Amara Berriri. Azken hiru golen egileak Dovao, Andoni eta Asier izan ziren.

Josu Zubiaren taldeak 35 puntu lortu ditu dagoeneko. Asmoa, oraingoz, sailkapeneko goiko postuetan mantentzea da.

Emakumezkoen liga



JOSETXO ARANTZABAL

DERBIAN, ARIZMENDIK ALOÑARI 3-1 IRABAZI ZION

Arizmendik 3-1 irabazi zion ligako azken partidua Aloña Mendiri. Etxekoek aukerak ondo aprobetxatu zituzten eta 2-0 aurreratu ziren. Atsedenera 2-1 iritsi ziren, baina bigarren zatian, Arizmendik 3. gola egin zuen. Arizmendik 2. tokian amaitu du liga eta Aloñak, berriz, 6. postuan. Orain, igoera fasea eta kopa jokatu behar dituzte.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Ozta-ozta irabazi zion Bergarak ligako azkenari

Labegaraietan jokaturako partidua txarra izan zen. Bi taldeek urduri jokatu zuten



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak 9 puntu ditu eta sailkapenean 7. postuan dago.

BERGARA
29-27
LEITZARAN

Bergara | Kapelastegi, Uribe (2), Larrañaga (3), Agirre (3), Sanchez (3), Mujika (3), Pozo, Najera (1), Najera (1), Zabaleta (1), Lenisoro, Ugalde (7), Zangitu eta Plazaola (5).

Leizaran | Aizpurua, Garcia (2), Sobrado, Alaña (3), Flores, Sarasola, Otermin (2), Lascoz (4), Amenabar (6) eta Nogales (10).

Golak: 4-2, 7-5, 9-8, 12-9, 14-11, 15-11, 19-13, 20-15, 23-17, 24-20, 25-24, 29-27.

Arantzazu Ezkibel

Bergarak 29-27 irabazi zion sailkapeneko azkena den Leitzarani Labegaraietan. Partidua txarra izan zen bi taldeen aldetik. Bergarak gehiago egingo zuela ematen zuen, batez ere bigarren zatiaren hasieran, baina azkenean bi goleko abantaila besterik ez zion atera Leitzarani.

Talde mahoneroa defentsan nahiko eskas ibili zen. Zulo asko utzi zituzten eta aurkariak hori aprobetxatu zuten bergararren atea zulatzeko. Lehenengo zatia nahiko berdindua izan zen; Bergara 2 goleko abantailaz ibili zen aurretik.

Leitzaranean joko gogorra erakutsi zuen domekan Labegaraietan. Falta asko egin zituzten

defentsan eta Bergara ere joko horretara moldatu zen.

AZKENEAN LARRI

Bigarren zatiaren hasieran, Bergarak 6 goleko aldea izan zuen. Partidua erraz irabaziko zutela ematen zuen, baina gauzak korapilatu egin ziren.

Jokoa nahastu egin zen; faltak eta protestak tarteko, epaile-

ak Leitzarango jokalaria bat kale-ratu zuten.

Bergarak huts asko egin zituen eskuin hegaletik; aurkariaren defentsan zuloak aurkitzea zaila egiten zitzairen etxekoei. Leitzarango taldea, berriz, aldea murrizten ari zen. Azkenean, bi goleko abantailaz irabaztea lortu zuen Bergarak eta bi puntuak etxean geratu ziren.

• BIGARREN TERRITORIALA

Partidu kaskarra izan zen guztiz

ARRASATE ESKUBALOI
29-12
ALLERRU

Arrasate Eskubaloi | Aranbuzabala, Ugarte (2), Vazquez (1), Etxebarria (6), Arrese (3), Ojanguren (2), Masip (5), Urra, Madinabeitia (2), Ulaberría (6), Zubizarreta (2) eta Uribe.

Allerru | Bergara, Aritz (2), Ibai, Urtzi, Mikel, Borja (1), Igor, Iban (5), Frias (1), Roberto, Javier (2) eta Asier (1).

Golak bost minuturo: 2-0, 5-2, 6-4, 6-4, 9-5, 12-7, 16-7, 17-9, 20-9, 23-10, 26-10 eta 29-12.

Larraitx Zeberio

Allerru taldeko jokalaria ezer gutxi egiteko gai direla erakutsi zuten domeka eguerdian Iturripen. Etxeko taldeak erraz irabazi zion sailkapeneko azken postuan dagoen taldeari, baina ez zuten partidua ona egin.

Allerruko joko motelak eragin txarra izan zuen Arrasatekoengan. Askoz ere hobeto jokatzeko gai direla erakutsi izan digute behin baino gehiagotan.

GANORARIK BAKO JOKOA

Erraz irabazi zuten Arrasatekoek, 17 puntuko aldearekin. Jokoa,



JOSETXO ARANTZABAL

Pello Ulaberriak sei gol egin zituen Usurbilen aurkako partiduan.

baina, ez zen batere ona izan. Baloi erraz asko galdu zituzten eta kontzentrazio falta nabaritu izan zitzairen behin baino gehi-

gotan. Egia da nahikoa izan zela garaipena lortzeko eta Allerruko jokoak ez zuela gehiagorako ematen baina...

• EUSKAL LIGA

Ondo jokatu arren, Aloñak galdu egin zuen Gasteizen

IES CONSTRUCCION
23-20
VERKOL ALOÑA

A.G.

Aloñako neskek 23-20 galdu zuten Gasteizen. Partidu ona jokatu zuten oñatiarrek; hala ere, ez ziren gai izan etxekoei lehenengo minutuetan ateratako aldea murrizteko. Benito entrenatzaileak adierazi digunez, azken partiduekin alderatuz nabarmen hobetu dute neskek euren jokia. Oñatiarrek beharrezkoa zuten horrelako partidua bat jokatzeko, jokalariren animoak jasotzeko.

Partidu hasieran 5 goleko abantaila izan zuten gasteiztarrek. Aloñak defentsa gogortu zuen eta gutxinaka alde hori murrizten joan zen atsedenera 12-9 iritsi arte. Defentsan ondo aritu ziren; baloi asko lapurtu zituzten oñatiarrek. Erasoan, ordea, ez ziren fin aritu eta huts asko egin zituzten jaurtiketetan.

Bigarren zatia berdintsu hasi zen. Hasierako minutuetan 6 goleko abantaila lortu zuten gasteiztarrek. Aloñako neskek gogotsu aritu ziren eta azken minutuetan partidua irabazteko aukera ere izan zuten. Hala ere, epailearen erabakiek Oñatiko taldea kaltetu zuten eta azkenean esku hutsik itzuli ziren etxera. Jokalaria bat aipatzekotan, Erika aipatu behar dugu. Aloñako jokalaria 6 gol sartu zizkion Gasteizko taldeari.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
IES Construcción-Verkol Aloña 23-20

LEHENENGO TERRITORIALA
Bergara-Leizaran Ernio Inmobiliaria 29-27
Usurbil-Ford Mugarri Arrasate 28-29
Arrikruz Oñatiko Kobak atsedena

BIGARREN TERRITORIALA
Arrasate Esku Baloi-Allerru 28-12

GAZTE MUTILAK
Bergara-Amenabar Zarautz 18-19
Aloña Mendi-Pneumax Elgoibar 22-22
Gatz Museoa-Jakion-Tolosa 34-24

GAZTE NESKAK
Arrasate E.B.-Pulpo 05-08
Bergara K.E.-La Salle Legazpi 25-07
Verkol-Aloña atsedena

KADETE MUTILAK
Aloña Mendi K.E.-C.D. Egia 29-24
Gatz Museoa-Jakion-Donibane 23-15

KADETE NESKAK
Verkol-Aloña-Bera Bera 23-16

• LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

Erreboteetan egin zien ihes garaipenak

Etxeko partidu guztiak irabaztea zen igoera fasean Mugarri Alkesakoen nahia, baina Leioako Askartza taldea gehiago izan zen Musakolan

MUGARRI ALKESA

69-75

ASKARTZA LEIOA

Mugarri Alkesa | Gamarra (11), Domingo, Mallabiabarrena (8), Mikel Biain, Barberena (2), Herzog, Kintana (21), Hernandez, Alarcia (11), Aranburu, Iñigo Biain (16) eta Isasa.

Askartza | Diaz (9), Baza (20), Rodriguez (2), Iglesias (2), Zalduendo, Gascon (14), Ortiz (4), Ferrero (16), Ikaza eta Sistiaga (8).

Golak: Lehenengo laurdena 27-13. Bigarren laurdena 35-39. Hirugarren laurdena 48-56. Laugarren laurdena 69-75.

Larraitx Zeberio

Aurpegi ilunak izan ziren nagusi neurketaren amaieran. Oso ondo hasi zuten partidua Mugarri Alkesakoen, lehenengo laurdenean 14 puntuko aldea zabaldu zuten markagailuan. Bigarren laurden amaieratik aurrera, ordea, Leioakoek beste joko bat erakutsi zuten eta garaipena eskuratu zuten.

HASIERA BIKAINA

Pitxi Herrero I. Memoriala zela eta Musakolako kiroldegian jokatu zuten zapatuan igoera faseko bigarren jardunaldia Zurutzuzaren mutilek. Leioako Askartza taldea izan zuten aurrez aurre arrasatekoek, aurretik ezagutzen ez zuten taldea, hain zuzen ere.

Partidu hasiera bikaina egin zuten etxekoek. Lehenengo laurdenean ondo aritu ziren saskiratzeetan, baita baloiak lapurtzen eta tapoiak egiten ere. Bizkaitarrak uztai azpira nola heldu asmatu ezin ibili ziren eta puntu gutxi egin zituzten. Lehen laurdenaren amaieran 14 puntuko zuloa zuten alde etxekoek.

Bigarren laurdenaren hasieran tarte hori 18 puntura zabaltzea lortu zuten Zurutzuzaren mutilek, baina garaipen erraza zirudiena porrot gazi bihurtu zen azkenean. Hainbat jokalarik aldaketa egin ostean Leioakoak etxeko taldeari neurria hartzen hasi ziren. Defentsan asko hobetu zuten eta errebo-te guztiak hartu zituzten. Saskiratzeetan, berriz, bikain aritu ziren Arrasatekoen defentsan zulo nabarmenak zabalduz. 33. puntu-



JOSETXO ARANTZABAL

Defentsa arazoak izan zituzten Arrasatekoek Askartzaren aurka.

tik aurrera nekez lortu zuten tantorik etxekoek. Bizkaitarrek, bitartean, aldea abiada handian murriztu zuten. 35 puntura berdindu zuten eta atsedenerako 35-39 jasozten zuten markagailuak.

BORROKA AMAIERARA ARTE

Hirugarren laurdena hasi bezain laster berdindu zuten Arrasatek. Berdinketa egon zen 39 eta 41 puntura. Askartzakoek, ordea, aurrea

hartu zuten berriz ere eta zortzi puntuko aldearekin amaitu zuten azkenaurreko laurdena.

Azken unera arte borrokatu zuten Mugarri Alkesakoen. Azken laurdenean berriz ere berdintzea lortu zuten. Lau minuturen faltan 64-64 jasozten zuten markagailuak. Azken txanpan, baina, berriz ere aurretik jarri ziren bizkaitarrak eta Arrasatekoek amore eman behar izan zuten.

Etxean lortutako lehen garaipena

ESKORIATZA

54-51

COBAF

Eskoriatza | Serrano (9), Laborda (5), Gomez (2), Caceres, Murillo, Usabiaga (9), Soriano, Exposito (16), Etxeberria, Agirrezabalaga (6), Alarcia (7).

Cobaf | Gutierrez (6), Cabañas (12), Toledo (6), Jimenez (9), Rivas, Mateo (4), Madorran (7) eta Arpon (7).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 13-12. Bigarren laurdena 27-23. Hirugarren laurdena 44-39. Laugarren laurdena 54-51.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako neskek ondo hasi dute urtea; etxekoek aurrean aurtengo ligako lehenengo garaipena eskuratu zuten-eta.

Partidu ona jokatu zuten etxekoek. Denbora guztian aurretik izan ziren Javi Corbalen neskek eta azken minutuetan urduri ibili ziren arren, arazorik gabe atera zuten partidua aurrera.

DEFENTSAN ONDO

Joko ona egin zuten eskoriatzarrek, batez ere defentsan. Taularen azpian zuloak ondo estali zituzten, aurkariei sartzen utzi gabe. Erreboteak hartzerako orduan ere, fin ibili ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Yaiza Espositok baloi asko lapurtu zien Cobafeko jokalariei.

Laurdenetako emaitzak hauek izan ziren: 13-12, 14-11, 17-16 eta 10-12.

Azken laurdenean, urduritasunagatik, ez zuten lortu partiduan izan zuten erritmo berare-

kin jarraitzea. Pertsonal asko egin zituzten. Hala eta guztiz, partidua irabaztea lortu zuten. Eskoriatzakoentzat balio handiko garaipena izan zen, puntuekin indar handia ematen dute-eta.

• SENIOR MUTILAK

Candy taldeak galdu egin du asteburuan Lasarten

BAR AINHOA

75-61

CANDY

A.G.

Lasarteko Bar Ainhoa taldearendako izan zen garaipena zapatu arratsaldean. Bi taldeak nahiko berdinduta hasi zuten norgehiagoka, baina hirugarren laurdeneko azken bi minutuetan bergararrak saskiratzeak huts egiten hasi ziren eta baloi asko galdu zituzten.

Lasartearrak, orduan, asko aurreratu ziren markagailuan eta hamar puntuko aldea zabaltzera iritsi ziren. Bergararrek amaierara arte borrokatu zuten partidua baina azken ahalegina ez zen nahikoa izan hamar puntuko atzerapena jasotzen zuten markagailuari buelta emateko. Aldea handitu egin zen gainera.

• 2. TERRITORIALA

Aloñak oso gaizki jokatu zuten (68-49)

A.G.

Gorka Judez Aloñako entrenatzaileak adierazi digunez, aurtengo denboraldiko partidurik txarrena jokatu zuten zapatuan Donostian Aloñako mutilek.

Erantzukizun handiko partidua zen zapatukoa, irabaziz gero igoera fasean sartzeko aukera baitzuten oñatiarrek. Aloñako jokalariek urduri jokatu zuten; defentsan lan txarra eginez eta erasoan jaurtiketa samurrak huts eginez. Ligako lehenengo zatia amaitu dute oñatiarrek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Mugarri Alkesa-Askartza 69-75

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Cobaf 54-51

SENIOR MUTILAK

Bar Ainhoa-Candy B.K.E. 77-61

Kevian Sport-Aloña Mendi 68-49

SENIOR NESKAK

Oiarso-Aloña Mendi 63-22

Eskola kirola

BERGARA

Gabonetako oporrak amaituta berriz ere bueltan da eskola kirola

Bergarako kiroldegira hurbildu ginen opor osteko lehenengo jardunaldian

Neska-mutikoak, indarberrituta, eskubaloian jokatzen harrapatu genituen

Eskola kirolera bueltatzea gogoko duten arren eskolara itzulera ez omen dute atsegin

Geaxi Ezpeleta

Gabonetako oporraldia amaituta astelehenean hasi ziren gaztetxoak eskolan. Eta zapatuan berriz eskola kirolera bueltatzea tokatu zitzaien. Aitortu zigutenez, "desiratzen geunden eskola kirola hasteko, baina ez eskolak". Oporren ostean, hala ere, gehienek onartu zuten goizean nagikeria pixka bat izan zutela ohetik altxatzerako orduan "Gabonetan lo asko egin dugu eta". Guk indarberrituta, gogotsu eta gustura ikusi genituen gaztetxoak. Hala ere, beti bezala gogokoen duten kirolean noiz jokatuko zain daudela esan ziguten.

Bergarako Labegaraieta kiroldegira hurbildu ginen opor osteko lehenengo jardunaldian neska-mutikoak bisitatuz. Bertan aurkitu genituen guztiak eskubaloian jokatzen eta taldeki-deak animatzen, guraso batzuen begiradapean. Han ez zeudenak Udal pilotalekuan pilota jokoak egiten zeudela esan zigun koordinatzaile batek.

DATORREN ZAPATUAN GAZTETXOAK IGERILEKURA

Arduradunetako batek esan zigunez, ekainak 6ra bitartean partiduez gain denetatik pixka bat egingo dute gaztetxoek. Besteak beste, datorren astean igerilekura joango dira ur-kirolak egitera neska-mutikoak.



GEAXI EZPELETA

Aranzadi 6. Josu, Xabi, Lander, Mikel, Egoitz eta Joxuk osatzen dute Bergarako talde hori.



GEAXI EZPELETA

Aranzadi 5. Andoni, Ekaitz, Unai, Patxi, Jon, Igor, Beñat eta Asierrek osatutako taldea dugu hau.



GEAXI EZPELETA

Antzuola-Elgeta. Ibai, Aitor, Mikel, Endika, Mohamed, Andoni, Antxon, Iker eta Gorkak jokatzen dute talde honetan.



GEAXI EZPELETA

Mariaren LagundiaB. Garikoitz, Mikel M., Jon, Josu, Martin, Omer eta Mikel A.

• OPOR OSTEAN GUSTURA BUELTATU DIRA GAZTETXOAK ESKOLA KIROLERA



MIKEL ETA IBAI | ANTZUOLA-ELGETA

"Oporrak eta gero alferkeria handiagoa eman digu gaur hona etortzeak. Gainera, astean hasi gara klasean ere eta gogorra egiten da goiz jaiki beharra".



ANDONI ETA ASIER | ARANZADI 5

"Oporretan lo asko egin dugu eta gaur jaiki beharrak nagikeria eman digu. Hala ere, behin hori gaindituta oso gustura gabilta. Gainera irabazten goaz...".



JOSU ETA XABI | ARANZADI 6

"Gustura etorri gara gaur, desiratzen geunden eskola kirola berriz hasteko. Gainera, hamaiketan izan dugunez partidua lo egiteko astia ere izan dugu".



MARTIN ETA MIKEL | MARIAREN LAGUNDIA

"Desiratzen geunden eskola kirola hasteko. Hala ere, nahiago genukeen gogokoen ditugun kiroleko bat tokatu izan balitzai, gogo handiagoa izango genukeelako".

Iruditan

• ERRUGBIA, SENIOR MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATEK 12-0 HARTU ZITUEN MENDEAN ARRATIAKO ZEKORRAK

Ez zen ikusteko norgehiagoka polita izan. Zelaia lokatzez betea zegoen jokaldi politik egin ahal izateko eta giroa hotza zen Garagartzan. Hala eta guztiz ere, etxeko taldearendako izan zen garaipena, 12-0 irabazi zuen eta Arratiako zekorren aurka.

Zapatuan jokatutako partiduan bi entsegu eta transformazio bat nahikoa izan zituzten Arrasatekoek Arratiako taldea mendean hartzeko.

• ARETO FUTBOLA, JUBENILAK, NAZIONAL B MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

ALOÑAK ERRAZ IRABAZI ZION GAZTELUETARI (11-2)

Aloña Mendik ez zuen arazorik izan Gazteluetari irabazteko. Partidu oso erraza izan zen oñatiarrentzat zapatukoa. Lehenengo zatiaren amaieran 7-1 zihozten irabazten etxekoak. Atsedena ostean, Gazteluetak pixka bat estutu zuen, baina min ematera iritsi gabe. Azkenean 11 gol egin zituen Aloñak. Golegileak Mohamed (6), Iban (2), Julen, Johan eta Iñaki izan ziren. Azken hau, kadetea izan arren, maila oso ona ematen ari da.

• PILOTA, ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

OLAIZOLA II.A ETA ZEARRA GARAILE BERGARAKO PILOTALEKUAN

Olaizola II.ak eta Zearrak 22-9 irabazi zioten Xala eta Goñi III.a bikoteari. Partidua hasieratik jarri zen gorrien alde eta inolako arazorik gabe lortu zuten Olaizolak eta Zearrak 22. tantora heltzea. Bergarako pilotalekuan bildu zirenek nahiko partidu motela ikusi zuten. Aurrealdean Olaizolak dejada polit batzuk egin zituen arren, bizitasun gutxiko tantoak izan ziren orokorrean. Domekakoa txapelketako 2. jardunaldia izan zen.

• 'PITXI' HERRERO ESKUBALOI MEMORIALA ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

BIDASOA IRUN TALDEAK 19-37 IRABAZI ZION ARRATERI

Jende asko batu zen zapatu arratsaldean Asobal ligako Bidasoa Irun eta Arrate taldeen arteko lagunarteko partidua ikustera. Hasi aurretik oroigarriak banatu zizkieten Arrate Eskubaloi taldeko arduradunek talde bietako ordezkariak zein epaileei eta Ford Mugarri babesleari. Pitxi Herrero entrenatzaile ohiaren sendia ere protagonista izan zen. Arrate taldearen plaka eta Bidasoa Irunen banderatxoa jaso zituzten txalo artean.

• SAN ANTON XXVII. KROSA



JOSETXO ARANTZABAL

42 LAGUNEK HARTU ZUTEN IRTEERA DOMEKAN ZUBIBERRIN

Giro polita izan zuten antxintxika egiteko domekan Bergarako San Anton jaietako Krosean parte hartu zuten 42 lasterkariak. Iker Larrea antzuolarrak amaitu zuen azkarren 15 kilometroko ibilbidea. Bi emakumek hartu zuten parte lasterketan eta M^a Carmen Garcia arrasatearra izan zen lehenengoa. Gazteen artean Jokin Etxabe bergararra nabarmendu zen. Lehenengo beteranoa Zumarragako Jose Primoi izan zen.

• SAN JUAN ETA UDABERRIKO PILOTA TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

LAU PILOTA PARTIDA JOKATU DIRA ASTEBURUAN UARKAPEN

San Juan torneoan Danel Ortubaik eta Andoni Beitiak 22-17 hartu zituzten mendean Julen Moron eta Aitor Larrea. Urrutiak eta Salaberrik 22-13 irabazi zieten Ariño eta Barrutiarri. Infantiletan oso polita izan zen Arana-Arregi eta Etxabigel-Urrutia bikoteen arteko lehia. 22-21 irabazi zuten lehenengoek. Udaberriko txapelketan 22-4 irabazi zuen Arrasateko bikoteak. Aitor Agirre eta Egoitz Uribarren bikain aritu ziren Añorgakoen aurka.

ESTI RAMOS | ARETXABALETARRA, ALAVES TALDEA JARRAITZEN DU CANAL GASTEIZEN

“Pitermanek astelehenetan uzten digu irudiak hartzen”

Xabier Urtzelai

Zein talde jarraitzen duzu gehiago, Reala ala Alaves?

Realeko zalea naiz ni, baina lan kontuengatik Alaves jarraitzen dut gehiago.

Gorputzaldi ederrarekin itzuli ziren atzo zaleak, beste behin, Anoetatik.

Bai, tonto aurpegiarekin, beste behin. Zaleak erreakzioaren zain daude, baina igarri egiten da Nihat, Kovacevic eta Aranburu ez daudela. Horrekin batera, ikusi egin beharko da fitxaketa berriek zer erakusten duten.

Alavesi dagokionez, on egin du entrenatzailea aldatzeak.


Badirudi baietz. Juan Carlos Olivari prentsaurrekoan galde-tu zioten ea “entxufe”-arekin sartu ote zen, eta bere erantzuna izan zen kategoria txiki guztietan entrenatzeaz gainera, ez zuela Piterman ezagutu ere egiten. Hasi, behintzat, ondo egin da.

Utziko dio Pitermanek lan egiten?

Nik uste dut baietz, baina Pitermanek ere esan du bera ez dela bulegoetan geratuko. Jokalariekin entrenatzen du askotan, eta, adibidez, *Cuchi Cos* zegoenean Piterman arduratzen zen arlo fisikoa lantzeaz. Hala ere, uste dut Juan Carlos Olivak askatasunez lan egiteko aukera izango duela.

Lan egiterakoan arazoak izan dituzue Pitermanekin, zelakoak?

Bi urte hauetan denetik ikusi dut. Astelehenetan bakarrik har ditzakegu entrenamenduetako irudiak, eta elkarrizketak egiteko baimena eskatu behar da. Horrekin batera, elkarrizketak egitea-



XABIER URTELAI

Esti Atxabalpen atzo, Gasteiz Cup taldeari 4-0 irabazi eta gero.

rreren dirua eskatu, hainbat kazetariri prentsaurrekoetara sartzea debekatu... Dena kontrolpean izan behar du. Guk, berriz, denetik egin dugu taldearen irudiak hartzeko: ondoko zelaietara joan, hesi artetik grabatu...

Itxuraz, Alaveseko jokalariek badaukite futboleko egiten duzula.

Ez da horrenbestera, anekdota da. Noiz edo noiz baloia niregana etorri, eta ukitu pare bat egin eta gero bueltatu izan diet baloia, edo luze jota. Jendea oraindik harritu egiten da neskak futboleko egiteko gauza garestu ikustera. Alde horretatik, Athleticen neskek egin dute aurrerapauso handia, eta igarri egiten da klubak ere euren aldeko apustua egin duela. Alemanian, adibidez, mutilendako moduko futbol eskolak daude neskendako ere.

“Entrenamenduak zelaietatik edota hesi artetik grabatu izan ditugu aurten”

Harmailatik

Denetik gerta daitekeenean



Xabier Urtzelai

90. minutuan. Orduan egin zuen Espanyoleko artistak norgehiagokako gol bakarra, Tamudok, Realeko hiru atzelariei izkin eginda. Eta orduan eraitsi ziren Anoetako harmailak. Txarrena da, aurten talde txuri-urdinari gertatu zaizkion desarrazoi guztiekin, zaleak norgehiagoka ikusten dabiltzanean badakitela txarrena gerta daitekeela, gertatu baino lehen. Eta txarraigoa da, aldrebeskeria handiena esaten duenak asmatu egiten duela.

Presioa. Joan zen astean ibili ginen Realaren presio ezaren gainean berbetan, eta alde horretatik, Lotinaren taldeak ikasgaia eman zuen atzo. Realekoek kontrarioaren hata izan zuten denbora guztian belarri atzean. Espanyol hamar jokalarirekin egonda ere, ezin baloia atzetik jokatuz atera. Realak hogei

minutu izan zituen partidua irabazteko, Skouboren 20 minutuak izan ziren horiek. Hortik aurrera, eraso egiterakoan ideia garbirik ez. Alde horretatik, hegaletako erdiraketetan zorrotzago ibiltzea komeni da; Barkero eta Cifu, besteak beste, ez ziren arlo horretan batere fin ibili.

Javier Agirre: “Taldeak ezin du onartu 44. minutuan gola jasotzea”. Esaldi hori bota zuen Osasunako entrenatzaileak Valentzian partidua txukuna eginda galdu eta gero. Gola 90. minutuan jasota, zer esango ote du Amorrortuk.

Derbia. Uste baino itxura askoz ere hobea erakutsi zuen Athleticen atzo, eta hainbat minututan zokoratuta izan zuen Bartzelona. Horri, baina etekina atera behar zaio. Bilbotarrak Anoetan ahaleginduko dira horretan; zaleekin zorretan dagoen Real izango dute aurrean.



Juan Carlos Oliva

Alaveseko entrenatzaile berriak ezin hobeto hasi du bere jarduna; gero eta txukunago zebilen Deportivori 0-2 irabaziz. Ea Pitermanek lan egiteko askatasuna ematen dion.



Samuel Eto' eta Clemente

Expositori txistua bota izanak ez du Kamerungo aurrelariaren alde gauza onik erakusten. Baina Clementek ere partituen ostean esan zuena esateko hobe zegoen isilik.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK	
R.Madril-Sevilla	4-2
Racing-Vila-real	1-0
Malaga-Cadiz	0-2
Getafe-Celta	1-1
Reala-Espanyol	0-1
Deportivo-Alaves	0-2
Zaragoza-Mallorca	3-1
Bartzelona-Athletic	2-1
Betis-Athletic	1-0
Valentzia-Osasuna	2-0

HURRENGOAK	
Vila-real-Osasuna	
Betis-Valentzia	
Zaragoza-At. Madril	
Deportivo-Mallorca	
Bartzelona-Alaves	
Reala-Athletic	
Getafe-Espanyol	
Malaga-Celta	
R. Madril-Cadiz	
Racing-Sevilla	

SAILKAPENA							
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	46	19	14	1	4	47	16
2. Osasuna	39	19	12	4	3	26	19
3. Valentzia	36	19	10	3	6	28	17
4. Real Madril	30	19	10	6	3	33	21
5. Deportivo	32	19	9	5	5	26	19
6. Vila-real	31	19	8	4	7	25	17
7. Celta	30	19	9	7	3	20	22
8. Sevilla	29	19	8	6	5	22	18
9. Zaragoza	27	19	6	4	9	25	23
10. Getafe	25	19	7	8	4	24	25
11. Racing Club	23	19	5	6	8	16	21
12. Espanyol	21	19	5	8	6	17	23
13. Reala	21	19	6	10	3	26	36
14. Athletic	20	19	4	7	8	18	20
15. Cadiz	20	19	5	9	5	14	21
16. Betis	19	19	4	8	7	15	25
17. Malaga	17	19	4	10	5	23	28
18. Mallorca	17	19	4	10	5	18	32
19. Athletic	15	19	3	10	6	20	27
20. Alaves	15	19	3	10	6	16	29

Kinieles

KINIELA	
1. Valentzia-Osasuna	1
2. Zaragoza-Mallorca	1
3. Deportivo-Alaves	2
4. Bartzelona-Athletic	1
5. Reala-Espanyol	2
6. Getafe-Celta	X
7. Malaga-Cadiz	2
8. R.Madril-Sevilla	1
9. Racing-Vila-real	1
10. Xerez-Recreativo	X
11. Hercules-Gimnastic	2
12. Tenerife-Murtzia	1
13. Sporting-Elche	X
14. Valladolid-Racing Ferrol	X
15. Betis-Athletic	1

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Eusebio Novoa oñatiarrak 23 urte daramatza munduan zehar bidaiatzen. Urtero, gutxienez, bidaia bat egiten du eta azkenaldian Islamaren Munduarekin

liluratuta dago. Bidaietan asko ikasten eitu eta Ozeanian izan ezik beste kontinente guztietan izandakoa da. Esan digunez aukera noiz sortuko zain dago. Gure

galderak erantzun bezain laster Errioxara abiatu zen asteburu pasa. Aukera duen bakoitzean egiten du pare bat eguneko txangoa oñatiarrak.

EUSEBIO NOVOA | OÑATIAR BIDAIARIA ETA MENDIZALEA

“Paisaia zoragarriak ikusten dira hor zehar, baina jendeak nauka ni guztiz liluratuta”

Larraitz Zeberio

Duela 23 urte ekin zenion bidaia-tzeari. Hain urrutira joan aurretik hemen inguruan ibiliko zinen hasieran, ezta?

Ez pentsa! Mendian hastea eta kanpora bidaiatzea batera etorri ziren. Festaz festa ibiltzen nintzen 1982an Peru aldera egin genuen arte. Orduan mundu guztiz berria zabaldu zen nire aurrean. Horrela hasi nintzen bidaia-tzen.

Zein helbururekin egiten dituzu bidaioak?

Paisaia politik ikusten dira hor zehar, baina jendea da gehien erakartzen nauena. Kultura oso ezberdinak ezagutu ditut bidaia hauetan. Irakurri egiten dut bidaiatu aurretik, ikasi herrialde horietan zer dagoen... Ez da bakarrik joatea eta han ibiltzea. Aurretik eta gero, bueltan ere gauza pila bat ikasten dira. Orain Islamaren Mundua ezagutu nahi dut. Irudi oso distortsionatua iristen zaigu. Nire iritzia da denok joan beharko genukeela Ekialde Hurbila ezagutzera gutxienez behin bizitzan.

Peru, Bolivia, Ekuador, Patagonia, India, Pakistan, Txina, Nepal, Tanzania, Iran eta Maroko... Zer esan dezake gure planetari buruz hainbat leku ezagutzen dituen batek?

Kontraste handiak daudela eta dena ezagutzea merezi duela. Ikuspegi tridimentsionala da nire helburua. Gehienetan gurea besterik ez dugu ikusten. Onena delakoan gaude eta ez da horrela. Ez dago kultura txarrik ez onik. Agian, Hego Ameriketako egoera da gogorrena. Oso zapal-duta daude han. India, Pakis-

tan... herri horiek oso politik dira. Asko ikasten da bertan.

Oinez, bizikletaz... era askotara mugitzen zara. Zein da zuretzat gustukoena?

Kanpora irteten naizenean oinez ibiltzen naiz normalean. Bizikletaz hemen inguruan ibiltzen naiz, Pirinioetan. Bizikleta oso polita da, baina lekuak eta jendea ezagutzeko onena oinez bidaiatzea da.

Zein izan da egin duzun azken bidaia?

Esan bezala Islamaren Mundua ezagutu nahi dut orain. Joan en urtean Marokon, Sirian, Jordanian eta Libanon izan nintzen.

Liluratu zaituen paisaia bat?

Ez dago oso urrutira joan beharrik paisaia politik ikusteko. Pirinioetan paisaia oso politik ditugu. Gustatzen ez zaizkidan eremuak eski pistak ugaltzen

“Irandarrek liluratuta naukate. Herri oso irekia eta abegitsua da. Irudi distortsionatua iristen zaigu”

“Kanpora irteten naizenean oinez ibiltzea gustatzen zait. Jende gehiago ezagutzen da horrela”

ari diren eremu horiek dira. Normalean, neguan, ez naiz inguru horietara joaten. Ez zaizkit gustatzen.

Liluratu zaituen herrialde bat eta zergatik?

Irango jendea zoragarria da. Irudi distortsionatua jasotzen dugu hemen. Gauzak oso bestelakoak dira. Problema handia izaten dut hizkuntzarekin, ingeles gutxi hitz egiten dudalako, baina jende oso irekia eta oso abegitsua da.

Bidaiatzea arriskutsua da?

Bai. Mendian kontuz ibili beharra dago. Material ona eraman behar da eta bertako girora ondo moldatzea ezinbestekoa da. Forman egon beharra dago, baina obsesionatu gabe. Ez naiz gimnasia joaten den horietakoa.

Pyrenaica aldizkariaren azken alean zure erreportaje bat argitaratu dute. Bidaiatzeaz gain argitaratzea ere gustatzen zaizu?

Gustuko dut idaztea. Beti eramaten dut koaderno txiki bat motxilan. Itzuleran dena txukundu, argazki batzuk sartu... beti egiten dut lan hori.

Abentura politik bizitzeko ez dago munduko beste puntara joan beharrik, ezta?

Abentura hitza asko erabiltzen da azkenaldian, baina nik ez dut oso gustuko. Abenturak norberak bere buruan bizi behar ditu.

Bidaiaritzat duzu zure burua mendizaleztat baino.

Horrela da. Txinan, Andeetan, Himalaian... ibilitakoa naiz eta gailurrak egin izan ditut, baina jendea ezagutzea dut gustukoan. Errioxara zoaz asteburuan. Astebururo egiten duzu txango bat?



JOSETXO ARANTZABAL

Eusebio Novoak Nepal eta Indiarra joateko asmoa du aurten.

Bai. Errelebotan lan egiten dut, eta arazorik ez badago behintzat, beti egiten dut irteeraren bat. Izotz bila noa asteburu honetan pioleta eta kranpoiekin. **Nondik nora ibili zaren erreparatu dugu. Nora eramango zaitu zure hurrengo abenturak?**

Aste Santuan Nepalera joateko asmoa dut. Lau aldiz egon naiz dagoeneko Nepalen, baina niretzako leku oso erakargarria da. Jendea zoragarria da eta paisaia, berriz, liluragarria. Abuztuan, berriz, Indiarra joan nahiko nuke.

Paisaia zoragarriak ikusi ditu Novoak 23 urteotan

1982an egin zuen Eusebio Novoak lehen bidaia handia. Peru aldean izan zen eta liluratuta itzuli zen. “Mundu berri bat zabaldu zen nire aurrean. Orduz geroztik urtean gutxienez bidaia bat egiten saiatzen naiz”, adierazi digu. Duela hiru urte Andeetan izan zen Debagoieneko beste hiru lagunekin, Aretxabaletako Luis Urkia *Tasito*, Arrasateko Pello Zabaleta eta Oñatiko Javier Atxa *Aizkora*.

Pyrenaica aldizkariaren azken zenbakiak jasotzen du Eusebio Novoak sinatzen duen bidaia honi buruzko erreportajea. “Hilabete egin genuen laurok Atacamako basamortuan. Jeep bat alokatu

genuen gidari eta guzti eta bikain ibili ginen”.

Atacamako desertuan ibili ziren hilabetez lau debagoiendarrak eta Txile eta Boliviaren arteko muga finkatzen duen Andeetako mendilerroa zeharkatu zuten. Bidean, Parinacota sumendia (6.342 m) eta Nevado Sajama tontorrak (6.548 m) egin zituzten.

“Temperaturara eta garaierara ondo girotzea ezinbestekoa izan zen”, azaldu digu Eusebiok.

Ezkerreko irudian Eusebio Novoa bera agertzen da Atacamako basamortuan aurrean duela. Paisaia zoragarriak ikusi dituzte bere begiek. Gehiagoren bila dabil.



KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Dikers taldeak zuzen, gogor eta tinkotasunez jardun zuen 3.60 aretoan | 22
- Ben Leek pop doinuak egin zituen Arrasateko Amaia antzokian | 23

Axi Olanorekin Espaloian jarri duen *Zki.Nº* argazki erakusketaz jardun dugu | 26

PIZTIAK TALDEAREN ITZULERA



JOSETXO ARANTZABAL

Gitarra-jotzaile batek taldea utzi badu ere, ez dira herren ageri ondarroarrak taula gainean.

ROCK MUSIKA | 'EURIAREN ZAIN' ITZULERA DISKOA AURKEZTU ZUTEN

Eten luzeak ez ditu uzkuritu Ondarroako piztiak, indarberritu egin ditu baizik

Sei urte isilik egonda, entzuleek taldea ahazteko arrisku handia dago. Hala ere, disko berria kaleratu eta oholtzetara itzuli dira Piztiak veteranoak. Arrasateko gaztetxean jo zuten zapatuan

Jon Berezibar

Taldekide, soinu eta ikus-entzuzko aurkezpenarekin itzuli dira sei urteko etenaren ostean Ondarroako Piztiak. *Euriaren Zain* da euren disko berria eta hura aurkeztera etorri ziren zapatuan Arrasateko gaztetxera.

Teknikoki eta soinuaren aldetik aurkezpen bikaina egin zuten, zalantza barik, ondarroarrek. Hainbeste denbora zuzenean jozteke egoteko, prestu eta guztia oso jabe agertu ziren Piztiak. Lehen laukote ziren eta orain hiru musikaririk osatzen dute banda, baina horiekin batera Jose Lastra soinu-teknikaria eta Josu Eizagirre bideo-sortzailea talderatu dituzte. Bidean geratu da

Josu Galan gitarra-jotzailea, eta horregatik, boskote moduan egiten dabilten ibilbide berrian soinu simple baina zuzenago baten alde egin dutela dirudi.

BIDEOA ABESTIEN EUSKARRI

Itzulera honetan, gainera, ez dute soinu bakarririk eraberritu. Izan ere, ibilbide berrian entzutekoak bezain besteko garrantzia dauka ikusitekoak. Josu Eizagirrek bideo proiektzio txukunak gertatu ditu *Euriaren zain* diskoko emanaldietarako eta irudiek sekulako indarra ematen diete berez energia eta bizitasun nahikoa daukaten abestiei. Aipatu moduan, gainera, bosgarren kidea ere badago, Jose Lastra, eta honen lana ere ez da gutxieste-

koa, teknikariak distira berezia ematen die-eta abestiei. Orotara, ederto funtzionatzen dute bostek. Zuzeneko guztian tinko eutsi zioten eurenari ondarroarrek eta

Sei urte isilik egotea arriskutsua da, baina indartsu itzuli dira

Ibilbide berri honetan bideo-sortzaile bat talderatu dute

gaztetxera ikusle larregi gerturatu ez bazen ere, aretoa lepo beteta ere berdin-berdin gozatuko lukete eurek ziur asko; eta baita zapatuan animatutako zaleek ere. Kontzertuak benetan merezi izan zuten, bai sei urteren ostean taldearen arrastoa galdua zutenendako, zein taldea aurrez ezagutzen ez zutenendako ere.

Izan ere, bere garaian pisuzko taldea izan bazen, lehengo bideari ideia fresko eta heldutasun handiagoarekin ekiteko prest daudela erakutsi zuten *piztiak*. Eurek esaten dutenez gauzak patxadaz egitea atsegin dute eta honela, denborarekin baina euren buruen oso jabe izanda, iraun dute. Zuzenekoetan dago orain lan guztia.

PIZTIK TALDEAREN ITZULERA


• ETEN LUZEAREN OSTEAN, BOSKOTE BIHURTUTA ITZULI DIRA PIZTIK




ALDAKETAK FORMAZIOAN. Bost urte baino gehiago ezer argitaratu barik egon badira ere, makina bat proiektutan ibili dira taldekideak lanean, eta azkenaldian Kirmen Uriberen emanaldietan musikaz arduratu dira. Sasi-eten honetan Jesus Galan gitarrajotzailea aita izan da eta proiektua alde batera utzi du. Orain hiru dira musikariak: Txomin Uribe eta Josu Aranbarri (irudian) eta Peio Larrañaga bateria-jotzailea.



ENTZUN ETA IKUSI. Josu Eizagirre bideo-sortzailea izan da hein handi baten ondarrorren itzuleraren erantzulea. Bideoklip bat egiteko proposamena luzatu zien *pizti* eta horretarako lanean zebiltzala diskoa taxutu zuten. Orain, Josu bera taldekidea da eta bere pantaila erraldoian islatzen ditu bere sorkuntzak abestiekin batera. Irudi iradokitzaileen bilduma polita aurkeztu zuen Josuk kontzertuan.



URIBETARREN POESIA ETA MUSIKA. Anaia Kirmenen hainbat olerki musikatu ditu disko berrirako Txomin Uribek. Horietako bat zapatuan aurkeztu zuten: *Gatibuaren balada*. Orain arte Kirmenen hitzak musikaz jantzi badituzte, Piztiak zuzenekoetarako musikara egokitu behar izan ditu Kirmen Uribek hitzak. Besteak beste *Bidaia kaiera*, *Asilah* edota *Saguzarra* egokitu dituzte disko berrirako.



ZUZENEKOTIK DISKORA. *Euriaren zain* dauka izena azkeneko lanak eta CDarekin batera DVDA ere aurkeztu dute. Azkoitiako Mataderixen zuzenean grabatutako diskoa da, gainera. Arrasaten kontzertu elektrikoa egin zuten, baina era akustikoan ere egingo dituzte emanaldiak datozen asteetan. Hurrengo kontzertua Bilboko Kafe Antzokian izango da otsailaren 3an eta ostean, 17an, Elgetara etorriko dira.

TXOMIN URIBE | ABESLARIA ETA GITARRA-JOTZAILEA

“Gure kantak ezagutu eta jarraitzaileak direnekin egiten dugu topo kontzertuetan”

J. B.

Kontzertuaren biharamunean aurreko gaueko emanaldiarekin pozik zegoen Txomin Uribe. Antza, aspaldiko jarraitzaile askorekin elkartzen dira zuzeneko berri hauetan.

Gustura Arrasateko saioarekin?

Gu oso gustura ibili ginen, jende asko etorri ez bazen ere. Bertan zeudenak gustura zeudela igartzen zen; askok kantak ezagutzen zituzten eta animatu egiten gintuzten. Jarraitzaileak ziren eta berotasuna nabari zen. **Urte batzutan isilik egon zarete eta orain itzuli. Zaila da berriz ere lehen zuzenean zeneukaten erosotasun hori berreskuratzea?**

Guk berezkoa dugu lasai jotzeko era eta ez dugu alderik igarri. Urte asko dira eta berez irteten zaizkigu gauzak. Alde bakarra da orain hiru garelara eta horrek aldaketak eragiten ditu.

Zuzenekoan bakarrik?

Guztia aldatzen da, baita konposatzeko kontzeptua ere. Orain gauzak modu basikoagoan planteatu behar dira gitarra bakararekin, hornidura gutxiago. Argi eduki behar da une bakoitzean


zer egin dezakezun eta zer ez. Abesti zaharrek nik aldea ikusten dut, baina jendeak dienez ez da hainbeste antzematen. Bestela, ez dago ezberdintasun handirik alde horretatik.

Musikaz gain, irudian ere egin dituzue aldaketak. Nola otu zitzaizuen proiektuaren kontua?

Aspalditik ezagutzen dugu Josu Eizagirre eta lan asko egingakoa da ikus-entzuzkoen alorrean. Anaiarekin *Bar Puerto*

“Jende gutxirekin, baina berotasuna nabaritu genuen Arrasaten”

“Lasaia da guk berez dugun jotzeko era eta itzulera ez zaigu gogorra egin”



Arrasateko kontzertua polita izan zela dio Txominek.

proiektuan ibili zen kolaboratzen eta hasiera baten berak jo zuen guregana klip bat egin gura zuelako; hortik abiatu zen guztia. Poliki-poliki irudiak sortzen hasi eta kontzertu osoa egiten amaitu dugu.

Abestiendako bereziki sortutako muntaiak dira Josuk egin dituenak. Maketa bat eman genion abesti berriekin, berak entzun zuen eta sortzen hasi zen, letrak nondik nora doazen kontzertuan hartuta, noski.



ROCK MUSIKA | DIKERS ETA COOL PANIC

Aurreiritziez haratago, taxuzko taldea dela erakutsi zuten Dikers-eko nafarrek

El Drogasen semearen taldea delako egin ziren ezagun, baina abizenaz gain badute zer eskainia

Asteleheneko Goiienkaria

Zaila da behin ezagun egiten hasi eta hasieretako estigma batzuk gainetik kentzea. Dikers nafarren gurutzeta musika *patineteroa* egitea da, baina denborarekin etiketa hori kentzea ere lortuko dute; euren zuzenekoetan egondakoak dira lekuko. Zuzen, gogor eta tinkotasunez jo zuten zapatuan Arrasateko 3.60en, aurreiritziak balio gabetzeko moduan.

Aurretik, Bergararik Cool Panic taldekoak etorri ziren.

Itziar Iturbe eta gainontzekoek ohiko rock-and-roll deskarga egin zuten eta, bide batez, taldekide berriak aurkeztu zituzten. Aldaketek kaltetu baino indartu egin dute taldea, eta hori frogatu zuten zapatuan.

SKATE-A ETA GEHIAGO

Dikers-ekoek bestelako poseak dituzte gurago, punketik eta rocketik gehiago edaten dutenak, Green Day-koen doktrinatik gertuago eta patinete baten

Zuzenean zalantzarik ez dago esperientzia handia daukala hirukoak, badakite zer nahi duten eta nola

gainean bada hobe. Baina azaleko itxuraz gain, esperientzia handia eta, batez ere, abesti boteretsuak dituztela argi utzi zuten. Ez zuten inola ere joaldi txepelik egin eta euren musika behar bezala defendatu zuten. Melodiei muzin egin barik gitarra euskarri sendoekin aurkeztu zituzten kantuak eta, nola ez, Barricadaren bertsio bat ere jo zuten, aita gustura uzteko. Alde batetik promozioa dago eta zalantzarik ez dago babes handia jaso duen taldea dela. Baina zuzeneko frogara ondo baino hobeto gaituzten du hirukoak eta horregatik ez daukate inoren gutxiespenik entzun beharrik. Hortik haratago, aurrera egiteko gogoekin ikusi genituen, rockerako joera handiagorekin, eta agian bestelakoak izango dira etorkizuneko pausuak; emango dituzte-eta.

Bakarrizketa Barregarrien I. Lehiaketa deitu du Debagunek. Bakarrizketok idazteaz gain, interpretatu

ere egin behar dira eta idatziz eta ikus-entzunezkoan aurkeztu. Otsailaren 28a da azkeneko eguna.

LEIRE LARDIZABAL | LORAMENDI ELKARTEKO TEKNIKARIA

“Umorea bultzatu behar dela uste dugu, onuragarria da-eta”

Monika Belastegi

Berrikuntzekin dator aurten Barre, barra barra izeneko bakarrizketa barregarrien lehiaketa lehiaketa.

Bai. Debagunek, Debagoieneko euskara elkartearen bilguneak, iaz antolatu zuen lehenengoz lehiaketa. Hura idatzizko umorezko testuen lehiaketa izan zen. Baina aurten, pentsatu dugu modu bateko edo besteko literatura lehiaketa asko dagoela eta *Barre, barra barra* lehiaketari elementu originala gehitzea eta, bide batez, formatua aldatzea. Hori horrela, aurtengo lehiaketari ikus-entzunezkoen arloa gehitu diogu. Hala, lehiakideek euren bakarrizketa barregarria idatziz bidaltzeaz gain, grabatu egin beharko dute VHSan edo formatu digitalean. Hori guztia dela eta, Bakarrizketa Barregarrien I. Lehiaketa izena jarri diogu.

Zergatik bakarrizketa barregarriak eta ez bestelako gai bat?

Umorea bultzatu beharreko kontua dela uste dugu, onuragarria delako. Hala, umorea lantzeko eta umorearen inguruan norberak dituen ideiak kanporatzeko asmoarekin sortu dugu lehiaketa.

Komikoak deskubrituko dituzue, hortaz.

“Lehiaketak umorearen munduan jarduteko ateak ireki dakizkioke, agian, lehiakideetako bati”

“Finalistek Bergarako Pol-Pol tabernan egin beharko dituzte euren bakarrizketak”



IMANOL SORIANO


Agian bakarren bat bai. Dena den, bakarka zein taldean egin daitekeen lana dela uste dugu. Bi lagun batu daitezke, esaterako. Batak, testu umoretsuak idazten dakielako eta, besteak, berriz, umorezko testu hori antzeztu nahi duelako. Umorearen munduan jarduteko ateak ere ireki dakizkioke, agian, norbait lehiaketak.

Zer-nolako erantzuna izango duela uste duzue?

Saiatu gara lehiaketaren berri Euskal Herri osora zabaltzen eta bideratu ere egin dugu antzerki eskoletara, ikus-entzunezkoan lan egiten duten eskoletara... Ezagutzera ematen saiatu gara. Erantzuna zer nolakoa izango den, bada, ez dakigu. Lehenengoz antolatu dugu, eta ez dakigu erantzuna zein izango den. Debagunen, behintzat, ilusio handiarekin dihardugu lanean.

Sari ematea ere berezia izango da.

Bai. Finalistek, Bergarako Pol-Pol tabernan antzeztu beharko dituzte euren lanak. Han epaimahaia egongo da eta finalisten lana ikusi eta gero erabakiko dute nortzuk eramango dituzten lehenengo eta bigarren saria –lehenengoa 300 euro dira eta 150, bigarrena. Epaimahaiari dagokionez, osatuko dute antzerki munduan, umore munduan, gidoiak egiten jarduten duten lagunek.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE Erakustoki eta lantoki berria
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73





POP | BEN LEE MUSIKARIA

Konplexu barik, pop abesti borobilak eta mezu baikorra lelo moduan

Modu akustikoan eta txantxetarako gogoarekin igo zen Ben Lee eszenatokira

J. B.

Ahoan irribarrea galdu barik eta ikusleekin jator eta arretatsu, Ben Lee kantugile gazteak azken birako Euskal Herriko kontzertu bakarra egin zuen zapatuan Arrasaten. Modu akustikoan eta gertutasun handiarekin aurkeztu zituen gainera *Awake is the new sleep* dis-

koko abesti argitsu eta baikorrrak. Gure artean telebistako iragarki batek egin du ezagun, baina sei disko kaleratu ditu dagoeneko itxura arrunteko australiar honek, RENFEko tren bere bidean gurutzatu baino lehenago. Ibilbide luze eta arrakastatsua egin du Ben Lee-k, 26 urte besterik ez dituen arren. Zalantzarik ez, pop etorkizun oparoa dauka mutilak.

Melodiak bezain kutsakorrek dira mutil gazte honen mezu baikor eta argitsuak

Itxurakeria hutsa izan daiteke edota Zen filosofia lezioen emaitza, baina kontua da tipo jatorraren planta inork baino hobeto saltzen duela Ben Leek. Bere abestiak ere molde horretakoak dira, egitura errazekoak baina melodia ikaragarri itsaskorrekoak. Berak argi dauka, musika mundu guztiarentzat egin behar dela dio eta jendearekin konektatu.

Jator eta ikusleengandik oso gertu agertu zen abeslaria une oro. "Tipo jatorra"

'MUSIC IS GLORIOUS'

Hori behin baino gehiagotan errepikatu zuen. Musikarekin baikortasuna eta konfiantza zabaldu gura ditu australiarrak eta utziz gero melodiak bezain kutsakorrek izan daitezke Lee-ren mezuak.

Emanaldi atsegina eta gustagarria egin zuen zapatuan. Hor dago eta kantari honen gakoa. Abesti argi eta zuzenak, zaletu mota askorengana hel daitezkeenak. Honela, ikusle gazte zein helduagoak ikusi ahal izan ziren Amaia antzokian; aretoa bete barik, baina multzo polita batu zuen australiarrak. Etengabe jardun zuen ikusleekin berrikerian eta txantxetan eta, gura edo ez, itxuraketia edo gertukotasuna kutsatu egin zituen, seguru.

PUNK ROCK I
NCC TALDEA

Ohi bezala, oso trinko aritu ziren

Non. Bergarako gaztetxean.
Zenbat jende. Bete egin zen.
Taldeak. Sarri's R'N'R Trio, The Fucked Frikis eta Nuevo Catecismo Catolico.

M.B.

Begarako gaztetxea bete egin zen zapatuan. Txapa irratiak Txapa jaia antolatzen zuten programazio berri aurkezteko eta ospakizun ekitaldien barruan kontzertua iragarri zuten. Hiru taldek hartu zuten parte. Xabi Señor No taldeko abeslariaren Sarri's R'N'R Trio taldeak ireki zuen emanaldia. Hirukoteak rock-and-roll doinua egin zituen, eurenak zein hainbat bertsio, Neil Young-enak, esaterako.

Bigarrenak taula gainera igozen The Fucked Frikis izan ziren; baita emanaldiaren abiadura handitu zutenak ere; izan ere, Asturiaseko laukoteak oso punk-rock azkarra egiten du.

Nuevo Catecismo Catolico taldeak oso trinko jardun zuen, ohi bezala. Azken diskoko kantua ia guztiak egin zituen, baina baita hasierako diskoetakoak ere. Eta horietan izan ziren, hain justu, entzuleetako askok gusturen entzun zituztenak. Dena den, Donostiako boskoteak ez zuen hutsik egin.



NCC-ko abeslari Eneko Etxeandia.

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



ZUZENEAN | BENITO LERTXUNDI EGUBAKOITZEAN IZAN ZEN ESKORIATZAN '40 URTEZ IKASTEN EGONAK' ZUZENEOA AURKEZTEN

Benito Lertxundik asebate egin zituen Eskoriatzan elkartutako zale guztiak

Bi ordu eta 40 minutuko zuzeneko egin zuen zortzi musikariz lagunduta; leporaino bete zen kiroldegia

Naiara Larrañaga

Udazken koloretan izan zen lehenengo 22:30ean. Maria Solt ta Castero azkeneko ordu bi eta 40 minutu beranduago. Tartean, ia atsedetik barik 30 abestitik gora eta hainbat pieza instrumental, guztiak publikoak parte hartzeko modukoak. Ez dago dudarik, 40 urte igarota ere Benitok bada ki bere publikoa asebetetzen. Kanta berriak eta betiko kantak tartekatatu zituen oriotar beterranoak, eta guztiak atsegin handiz entzun genituen. Berriak oso ederrak, eta betikoak, berriz, gogoangarriak. Tarteka, meza orduan ginen sentipena izan nuen: hura zen isiltasuna! Baina kanta bakoi-tza amaitzerakoan, txalo hotsez betetzen zen Eskoriatzako udal kiroldegia.



JOSETXO ARANTZABAL

ARGAZKIAK LAGUN

Zuzeneko bikaina izan zen. Dudarik ez dago. Nire amaren lagun guztiek gozatu egin zuten. Nik, berriz, Benito etxean entzuteagatik ezagutzen duten horietakoa izanik, etxean nintzela pentsatzen nuen. Eszenatokian bederatz lagun ziren, eta modu simple baina neurtu baten atondu zuten

Adin guztietako publikoa batu zuen Eskoriatzan Benito Lertxundik.

eszenatokia: pantaila erraldoi baten, izugarriko ikus-entzuzekoak eskaini beharrean, argazkiak erakutsi zituzten. Lehenengoan, hostoak jausten ari zaizkion udazkeneko baso zuhaitza. Baina itsasoa ere iku-

30 abestitik gora eta hainbat pieza instrumental jo zituen kontzertuan

si genuen, eder asko. Hortxe azaldu zigun Benitok nola Jon Maia joan zitzaion etxera *Itsasoari begira* abestiaren letrarekin. Itoitz ere ikusi genuen.

Hunkigarria izan zen *Erribera, Atarratzeko jauna, Nere herri-*

ko neskatxa maite... entzutea. Jendearen eskariei erantzun zien Benitok, berak ederki dakien moduan, eta ia 3 orduko emanaldiaren ostean, asebeteta alde egin genuen *Maria Solt* jotzen zuen bitartean.

BENITO LERTXUNDI | ABESLARIA

“Hunkigarria da kontzertu berean, erritu berean, hiru belaunaldi batera ikustea”

Aitziber Aranburuzabala

40 urtez ikasten egonak zuzeneko grabaketa aurkeztu zuen Benitok joan zen egubakoitzean Eskoriatzan.

Berandutxo ez da zuzeneko ataratzeko?

Askotan esan dut aspaldi honetan, baina disko hau Elkar diskoetxeko lagun bati zor diot. Ez dut inolako intentzio berezirik izan bilduma bat egiteko. Nire diskografiara gehitzen den disko bat gehiago besterik ez da. **Zure ibilbidearen laburpena egiteko asmoz ez duzu egin aqian,**

baina Ez dok amairutik 2005erako kantak daude.

Nire ibilbidearen denbora guztia hartzen du nolabait. 67ko kanta bat ere badago. Garai horiek guztiak agertzen ditu diskoak, baina hori naturalki gertatzen den zerbait delako.

Disko berrian Jon Maiak idatzitako kanta bat jaso duzu.

“Sarriegi abesten dudalako sentsazioa ez dut batere atsegin”

Etxera etorri zitzaidan behin, papertxo batekin, itsasoaren gainera gogoeta batzuekin, eta musikatu eta kantatuko nukeen galdetu zidan; horrela sortu zen *Itsasoari begira*. Itoiz ere antzera sortu zen: telebistan ikusi genuen han gertatutakoa eta Olatz Zugastik abestu zidan berak egindako kantatxo bat.

Belaunaldiak batzen dituen abeslaria zara. Zer egiten duzu gazteak zein nagusiak erakartzeko?

Duela dozena bat urte-edo hasi naiz konturatzen horretaz, Iparraldeko kantaldietan. Handik hiruzpalau urtera gauza bertsua ikusten hasi nintzen Hegoaldean ere. 40 urte daramatzagu



Benito Lertxundi.

ARTXIBOA

hemen eta jendeak jarraitzen gaituenez, gerta daitekeen zerbait da. Hunkigarria egiten zait kontzertu berean, nolabait erritu berean, elkarrekin ikustea hiru belaunaldiak.

Nolako agenda duzu?

Hileon emanaldi batzuk ditugu. Hala ere, sarriegi abesten dudalako sentsazioarekin aritzea, kasik funtzionario baten itxuran, ez dut batere atsegin.

FILM LABURRA | LEHIAKETA ANTOLATU DU GIPUZKOAKO ADIMEN URRIKOEN ALDEKO ERAKUNDEAK (ATZEGI)

Venezia ez dago hain urrun Aretxabaletako Atzegikoendako

Aretxabaleta Venezia bihurtuko duen film laburra grabatu zuten Atzegikoek zapatuan, elkarreak antolatutako lehiaketan aurkezteko

Jon Berezibar

Imajinario handiarekin eta aha-
legin are gehiagorekin, Aretxabaletako plaza Veneziako San Marcos plaza bihurtu zuten Atzegikoek zapatuan eguerdian, gidoiak hala eskatuta.

Izan ere, elkarreak berak deitutako film laburren lehiaketara aurkeztuko dute asteburuan grabatutako maitasun istorio hau. Antzezleak, guztira 17, adimen urrikoak dira, eta bai gidoia bai filmaketa elkartekoek egin dute. Giro ezin hobean eta etengabe txantxak egiten, egun batez zinemagile izan ziren Aretxabaletako Atzegikoak.

Bikote baten istorioa kontatzen da filmean eta bi hilabetez jardun dute prestaketetan. Istorioko bikoak Veneziako inauteriekin egiten du amets, baina garestiegia delako ezin dira hara joan. Hala ere, adiskideen laguntzarekin egia bihurtuko dute desioa. Desio hori egia bihurtzeko, lagunek herrian, Aretxabaletan, Veneziako aratusteak prestatuko dituzte. Filmaren azken sekuentzia izango da hori eta inauteri egunean grabatuko dute, herriko ospakizun garrantzitsua da-eta. Gainera, hainbat herritar ere veneziarrez moztortuko dira egun horretan filmean pentsatuta.



San Marcos plazan dagoen Florian kafe ezaguna irudikatu zuten herriko plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

• EGUN BATEZ AKTORE IZAN DIRA ATZEGIKOAK



IKER |
ARETXABALETA

“Denon artean filma egiteko batu gara eta Venezian gaudela antzestu behar dugu gaur. Nik motorra hartu eta ihes egin behar dut besteek harrapa ez nazaten.”



LOURDES |
ARETXABALETA

“Aktore lana egiten ikasten gabiltza eta horregatik egin dugu filma. Asko entseatu dugu, ia bi hilabete baino gehiago. Veneziara joan gura duen neska naiz ni”.

Mendigoia Hotel berria

ESKAINITZA BEREZIA URTARRILEAN

Gela bikoitza: 50 euro*

Banako gela: 60 euro*

Suitea: 110 euro*

*Gosaria prezioaren barruan.
Prezio guztiei BEZa gehitu behar zaie.

 **Mendigoia**
HOTEL



Torrebaso industrialdea 8
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 57 00
Faxa: 943 71 54 10
E-posta:
reservas@hotelmendigoia.com



Beasaindarra sortzez, 15 bat urte daramatza Gasteizen bizi izaten Axi Olanok. Hangoak dira *Zki.Nº* erakusketan batu dituen etxeko zenbakiez osatutako

argazkiak. Aitortu digunez, zaletasunez aritzen da argazkigintzan; hala ere, hogei urte dira kamera aldean aritzen dela Txindokipetik Gorbeialdera bidea egin duen

kazetariak. Bere argazkiak www.nontzeberri.com eta www.cafepiazza.tv webguneetan daude ikusgai, bai eta Elgetako Espaloian ere.

AXI OLANO | 'ZKI.Nº' IZENEN ERAKUSKETA JARRI DU IKUSGAI ELGETAKO ESPALOIA ANTZOKIAN

“Desafio polita izan da lana; bizitzaren bilakaera erakutsi didate Gasteizko zenbaki zaharrek”

Marijo Deogracias

Kaleko zenbakiak batu dituzu *Zki.Nº* erakusketan. Zergatik horrelako bilduma bat?

Desafio txiki bat bezala hasi zen. Lehendik bizpahiru aldiz topatuta nituen zenbaki bitxiak eta bilduma gehitu egin nuen era horretara. Denetik dago. Batzuk Gasteizko Alde Zaharreko etxe-etako zenbakiak dira –eskuz pintatuak asko eta asko; tipografia ere asmatutakoa dirudi batzuetan, zenbaki oso bitxiak baitira. Aitzogile, Zapatagile eta horrelako kaleetan atari bakoitzak zenbaki guztiz ezberdinak zituela ohartzea nahiko berezia izan zen. Atarietako zenbakiak, hain garrantzi gutxiak, zenbaitean ezinbesteko bihurtzen dira polizientzako, kobratzaileentzako edo kazetariendako...

Edo postariendako, ala?

Baita hori ere. Baina kontua da batzuetan balitekeela norbaitek ez nahi izatea zenbakia agerian egotea eta horietako kasu batzuk ere topatu ditudala: klaronarekin egindako zenbakiak, erraz-erraz ezaba daitekeelako jakina. Beste baten, Florida parkeetik Ajuria Enerako bide azpian, soldadura puntuak markatuta egindako zenbakiak aurkitu nituen.

Badirudi zenbaki bakoitzak bere istorioa duela.

Batzuetan atariari zenbakia aldatu diote, berrantolaketa baten ondorioz, eta horren ondortik zenbaki berria erabat ezberdina da. Baina pintura joan egiten da eta zenbaki zaharra agertzen bi zenbaki erakusten dute atariak. Desafio polita izan da.

Esaterako, etxe berrietako atariak estilo bereko zenbakiak dituzte, denak berdinak, sinbolo baten antzera. Horrek bizitzaren bilakaera erakutsi dit: lehen, kalean egiten zen bizitza eta orain, berriz, Alde Zaharreko badauzka paraje oso politak, baina jada ez da zenbaki haiek egin zirenekoa. Horrek guztiak inperfekzioa edo desberdintasuna sujeritu zidan, kale berdinak, norberak nahi izan duen zenbakiak sortzea.

Hortaz, hainbat bitxikeria.

Badago, esaterako, anarkia osoarekin jarritako, izendatu bako dozena erdi tinbrez inguratuta zenbaki bat. 76 zenbakia ere badago, niri azala aldatzen ari den suge bat sujeritzen didana. Eta, beste baten, esaterako, hormatuta dagoen zenbaki bat, Zapatari kalean.

“96 argazki dira guztira, 20x30 cm-koak. Espaloikoak, aurkeratutakoekin egindako argazki mosaikoa dira”

“Kamera digitalarekin egin ditut. Orain analogikoa dut, bi munduen artean igeri egiteko asmoz”

Izenburua ere nahiko xeblea geratu zaizu.

Hitz jokoa egin nuen euskal eta erdal akronimoekin: *zki*, zenbakia eta *nº* numero berbatik.

Zenbat zenbakiri atera diezu argazkia?

96 argazki dira guztira, 20x30 cm-koak, baina Espaloian dagoen bilduma aukeraketa bat baino ez da. Ongien iruditu zaizkidanak zintzilikatu ditut. Aleatoriki aukeratu ditut, kolorearen arabera. Mosaiko bat sortu dut. Gainera, Espaloia leku oso egokia irudi zait; Leioan ikasten nuenean sarri pasatzen nintzen Elgetatik, baina han inoiz geratu barik. Eta orain, Espaloian!

Bigarrenez erakusten duzu zenbaki bilduma. Nola joan zen lehenengo erakusketa?

Gasteizko Cafe Plaza kafetegian eskegi nuen lehenengoz, azaroan eta abenduan, eta oso pozik nago horrekin. Gasteizko lekurik erdialdekoena da eta erakusleho nagusian bilduma eskegitzeko aukera izan nuen, txandakako sistema baten.

Artiumeko kontserbadoreburu Dani Castillejok eta Birminghameko MAC Arte Garaikideko zentroko Alec Boylek esan didate gustatu egin zaiela, eta horrek zeharo harritu nau.

Muga oso goian jarri duzu, beraz.

Badirudi, gainera, orijinala izatea arlo horretan nahiko zaila da. Ikusi egin behar...

Hogei urtez argazkilaritza-zale, eta lehenengo argazki bilduma duzu hau?

Ibiliz naiz nire argazkiak erakusten, eta batek behin aholku horixe eman zidan: har ezazu gai bat eta jorratu gai hori. Nirea sas-



Axi Olano argazkilaria.

ki-naski hutsa zen. Zailena gaia topatzea da; horregatik, seguru asko, kaleko historia honek ez du luze iraungo.

Argazkiak digitalak ala analogikoak dira?

Argazkiak kamera digital batekin egin nituen eta norbai-

tek kamera on-ona ez zela eta hobe erosteko aholkatu zidan. Baina garai baten nahi eta ezin erosi izan nuen Nikon analogiko horietako bat eskuratu dut. Bi munduen artean igeri egiteko asmoz nabil, baina pretentsio handirik barik.

'ZKI.Nº' erakusketa urtarrilaren 26ra arte dago ikusgai Espaloian

Joan zen astea ezkerre daude ikusgai Axi Olanoren argazkiak Elgetako Espaloian. Hango horma baten eskegi ditu Gasteizko Alde Zaharreko hainbat etxetako atariei lapurtutako zenbakien argazkiak. Kolore biziak dira erakusketaren adierazgarriena, baina baita Gasteizko Alde Zaharri buruz ematen diguten ikuspegi berezia ere. Izan ere, “Gasteizko almindra zaharren erdia aukeratu nuen lehenengo argazkiak ateratzen joateko, eta hantxe topatu ditut etxe-etako zenbakirik bitxiak. Gehien-gehienak oso zaharrak, baina guztiek esangura berezia dutenak. Askok, jada, ulergaitz bihurtu dira

eta besteko askok azpian ezkutuan zuten zenbakia agerian utzi dute”.

Inolako asmo barik hasi zen atarietako zenbakiak argazkira ekartzen eta egun batez, bilduma osatzea erabaki zuen ofizioz kazetari, baina afizioz argazkilaria den beasaindarrak.

Zki.Nº erakusketa Gasteizen erakutsi zuen lehenengoz eta orain Elgetara ekarri du. Nahiko luke egileak erakusketa beste leku batzuetara ere eramane, eta baliteke bere jaioterrira, “Beasainera”, ere eramatea. “Erakusketa egina dago eta mugitzea baino ez da”, adierazi digu. Oraingoz Elgetan dago ikusgai, urtarrilaren 26ra bitartean.



Bi egile debagoiendarren lanak agertzen dira liburutegiko Neguko Gidan

Arrasateko Unai Busturia eta Julen Ribas komikigileen lana dago, batetik, eta Gose taldearen estreinaldi diskoa, bestetik

Leire Kortabarria

Negurako 70 liburu eta ikus-entzunezko gomendio batzen dituen Neguko Gida udal liburutegietan dago. Uda eta negu denboraldietarako prestatzen dute gida hori Debagoieneko udal liburutegiek.

Gidak argitaratu ahala, gero eta dokumentu gehiago gomendatzeko ahalegina egiten dute liburutegiek, eta oraingoan ere hala egin dute. Udakoan ez bezala, negukoan ikus-entzunezkoen gomendioak daude, 12, kasu honetan.

Tartean, bi egile debagoiendarren lanak daude: bata, Unai Busturia eta Julen Ribas arrasatearrek egindako *Numenak*

komikia, gazteei gomendatuta; bestetik, Arrasateko Gose taldearen lehen diskoa.

EUSKAL EGILE ASKO

Gomendioak adin multzoka sailkatu dituzte: 0, 6 eta 9 urtetik aurrera, Gazteak eta Helduak, eta gero, Ikus-entzunezkoak. Bakoitzean, hamar bat aholku dago, euskaraz eta espainolez. Euskal egile ezagunen lanak daude: Juan Kruz Igerabiderena, Patxi Zubizarretarena, Harkaitz Canorena, Hasier Etxeberriarena edo Pako Aristirena, besteak beste. Nazioarteko literaturako betiko klasikorik ere badago: hor dago Carlo Collodiren *Pinocho* ipuina, adibidez.

Nabarmentzekoa da ere, helduen kasuan, nobela ez beste genero batzuk sartu dituztela: esaterako, Miguel Delibesen *La tierra herida* entsegua.

Bergarako udal liburutegiko arduradunek azpimarratzen dituzte John Maxwell Coetzee Literaturako Nobel saridunaren *Hombre lento* nobela eta Orham Pamuk turkiarraren *Nieve* lana.

Labur

Kanuto Deunaren eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute hilaren 21ean, zapatua, Aretxabaletan. Besteak beste, bazkaria antolatu dute, eta txartelak salgai daude Azkena, Ezkutu eta Urbaltzen, 15 eurotan.

Egun osorako antolatu dituzte ekintzak: hala, 12:00etan, bolo txapelketa jokatu dute; 14:30ean, bazkaria frontoian; bazkaloste girotzeko, orkestrarekin dantzaldia, hipnotizatzailearen emanaldia eta capoeira eta makulele erakustaldia Senzala taldearekin; 19:30ean, kalejira, eta gero, kontzertua eta DJ jaia.

'iAy, Manolo!' umorezko antzezlanaren egingo dute egubakoitzean Oñatin

La Tentación eta Peineta taldeek *iAy, Manolo!* umorezko antzezlanaren egingo dute egubakoitzean, hilak 20, Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean. Teresa Calok idatzi du lana, eta Eneko Olasagatik zuzentzen du.

Zorionsu izaten uzten ez diguten gizon eta emakumeon miserietaz barre egiten du antzezlan horrek. Etxe bat berritzen ari diren bi igeltsero gai filosofikoak eztabaidatzen hasten dira; horren harira, hainbat gorabehera gertatuko dira etxean.

Barón Rojo rock taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean Arrasaten

Barón Rojo rock taldeak kontzertua egingo du datorren egubakoitzean, urtarrilak 20, Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00etan. Sarre-erak erosteko aukera badago, 15 euroko salneurrian. Kopuru mugatua ipini dute salgai.

Gaur egun, lau kide osatzen dute Barón Rojo taldea: Armando eta Carlos de Castrok (gitarra eta ahotsa), Ángel Ariasek (baxua eta koroak) eta José Martosek (bateria). Orain azkeneko, *Perversions* diskoa kaleratu dute.

Hitzorduek



ARATUSTEETAKO IRUDI LEHIAKETAK ARRASATEN ETA BERGARAN |

Arrasateko lehiaketan, 400 euroko saria emango dute; Bergarakoan, berriz, 300 eurokoa

Aratusteak badatozela eta, jaietako kartela edo egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa bana deitu dute Arrasateko eta Bergarako Udalek.

Arrasateko lehiaketan edozeinek parte har dezake, 50x70 cm-ko kartel bertikalekin. Teknika libre da, eta derrigorrezko testua, *2006 Inaute-*

riak Arrasate. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Bergarakoan, ordea, bakarrik han bizi diren edo erroldatuta daudenen parte har dezakete, 50x35 cm-ko irudi bertikalekin, *Aratusteak 2006, Bergara* testuarekin. 300 euroko saria dago jokoan. Bietarako mugaeguna otsailaren 3a da.

IKUSKIZUNAK |

• **Pirritx eta Porrotx pailazoak Aretxabaletan**
Urtarrilaren 28an datoz Aretxabaletako kiroldegira Pirritx eta Porrotx pailazoak. Sarre-erak salgai daude. 4 euro balio du eta kultura etxean, kiroldegian edo ludotekan eros daitezke. Leihatilan 5 euro balioko du sarrera bakoitzak.

• **Otehitzari Biraka ikuskizunerako sarrerak**
Otehitzari Biraka musika, poesia eta dantza ikuskizuna egingo dute Kukai eta Ttianttaka taldeek datorren egubakoitzean, hilak 20, Elgetako Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Sarre-erak salgai daude, 10 eurotan Goibeko elkarteak bazkideendako eta 12 eurotan gainerakoendako.

ZINEMA |

• **Plan de vuelo: desaparecida filmaren emanaldia**
Film hori emango dute gaur, astelehena, Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean.

• **Match Point filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin**
Kultura etxeko zinema aretoan emango dute aipatutako filma gaur, astelehena, 19:30ean.

• **El camino más corto filma emango dute Elgetan**
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• **La pequeña Lola filma, Arrasateko zineklubean**
La pequeña Lola delako filma emango dute eguenean, hilak 19, Amaia antzokian, 20:30ean.

• **2046 delako filma emango dute Oñatiko zineklubean**
Eguenean, hilak 19, emango dute film hori Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan.

LEHIAKETAK |

• **ETBko Mihiluze lehiaketan parte hartzeko aukera**
ETB1eko *Mihiluze* lehiaketan parte hartzeko jendea behar dute. Hain zuzen, 18 urtetik gorako lehiakide umoretsuak, berritsuak eta drogoak behar dituzte. Argibideak: 943 01 17 84 edo mihiluze@eitb.com.

IKASTAROKAK |

• **Kontakt-inprobisazio dantza ikastaroa Aretxabaletan**
Kontakt-inprobisazio dantzen bigarren ikastaroa egiten ari dira Aretxabaletan. Aurreko taldeko jendeak jarraitu gura zuen, eta jende berria ere sartu da. Aste Santura bitartean egingo dute ikastaroa.

• **Bi ikastaro antolatu ditu Tril Emakume Taldeak**
Aretxabaletako Tril Emakume Taldeak honako ikastaroak antolatu ditu: eskulanak (martitzeno udaletxe zaharrean, 18:00-20:00) eta kakorratz-lan,

patchwork, puntu eta brodatu ikastaroa (eguazteno, udaletxe zaharrean, 18:00-20:00).

• **Haririk gabe konektatzen ikasiko dute Oñatin**

Etxean, bulegoan edo tailerrean kable bidez edo haririk gabe hainbat ordenagailu konektatu eta sarea kudeatzeko ikastaroa antolatu du Udal Teknologia eta Informazio Gizarte batzordeak. 30 orduko ikastaroa da eta urtarrilaren 30ean hasiko da. Izena urtarrilaren 25a baino lehen eman behar da telefono hauetan: 943 03 77 00 edo 943 78 31 03.

• **Hainbat ikastaro antolatu ditu Oñatiko Gaztelekuak**
Hainbat ikastaro antolatu ditu Gaztelekuak: perkusio ikastaroa (otsailaren 4 eta 5ean, izenematea 20a arte), larrugintza (otsailaren 11n eta 12an, izenematea 27a arte) eta dantza afrikarra (otsailaren 25ean eta 26an, izenematea otsailaren 10era arte). Argibideak, 943 71 82 57 telefonoan edo gip@oinatigazteleku.com helbidean.

• **Denetarikoa tailerrek antolatu dituzte Arrasaten**
Emakume Txokoak era guztietako ikastaroak antolatu ditu, urtarrilean hasteko: salsa, tai-chi, yoga, ingelesa, asertibitate eta komunikazioa, lotura afektiboak eta emakumeak, eta gehiago. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

Eguraldia



Euria lagun hasiko dugu urtarrileko hirugarren astea

Gaur goizeko lainoak bihar arratsaldera arte behintzat gure artean izango ditugu. Euria ere egingo du, eta, tarteka, mendealdeko haizeak joko du, gogotik. Freskotasuna ere igarriko dugu, izan ere, elurra egingo du 1.000 metrotik gora. Tenperaturak eguaztenez gora egingo du pixka bat; hala ere ez digu eguraldian aldaketarik ekarriko, aste euritsu aurreikusten dute-eta adituek. Aste amaiera aldera, bereziki joango zaigu negu giroa eta baliteke eguen arratsalderako lainoek urik ez botatzea. Egubakoitzerako ateri egotea espero da eta ostarteak zabaltzen joango dira.

Goardiako farmaziak

ARRASATE		
Astelehena, 16	Irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
Martitzena, 17	Amezua	Santa Maria, 33(943 79 09 74)
Eguaztena, 18	Amezua	Santa Maria, 33(943 79 09 74)
Eguena, 19	Ruiz	Maala, 31(943 79 14 09)
Egubakoitza, 20	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)

BERGARA		
Astelehena, 16	Zabala	Barrenkale, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 17	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguaztena, 18	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguena, 19	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Egubakoitza, 20	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)

OÑATI		
Astelehena, 16	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Martitzena, 17	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguaztena, 18	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Eguena, 19	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 20	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)

ARETXABALETA		
Astelehena, 16	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 17	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 18	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 19	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 20	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Eskoriatza	943 71 44 07	Hondakindegia Alternatiboak	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Arrasate	943 77 11 43
Oñati	943 78 04 11	Bergara	945 76 44 42
		Oñati	943 78 36 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31	Kiroldegiak	
PESA	902 10 12 10	Aramaio	945 44 53 35
Taxiak		Arrasate	943 77 16 77
Arrasate	943 79 12 22	Aretxabaleta	943 71 26 28
Aramaio	945 44 50 33	Bergara	943 76 56 41
Aretxabaleta	943 79 22 33	Elgeta	943 76 82 84
Bergara	943 79 12 22	Eskoriatza	943 71 53 28
Eskoriatza	943 71 40 59	Oñati	943 71 63 75
Oñati	943 78 03 65	Kultura Etxeak	
RENFE	943 28 35 99	Antzuola	943 76 60 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99	Udalak	
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93	Antzuola	943 76 62 46
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47	Aramaio	945 44 50 16
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15	Arrasate	943 79 09 00
Zerga Bulegoa	943 76 58 63	Aretxabaleta	943 71 18 62
Euskara Taldeak		Bergara	943 77 91 58
Debague	943 77 12 28	Eskoriatza	943 71 46 88
AED / Arrasate	943 77 12 28	Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34	Oñati	943 78 03 53
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85	Udalak	
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70	Antzuola	943 76 62 46
Jardun / Bergara	943 76 08 19	Aramaio	945 44 50 16
		Arrasate	943 79 09 00
		Aretxabaleta	943 71 18 62
		Bergara	943 77 91 58
		Elgeta	943 76 80 22
		Eskoriatza	943 71 44 07
		Leintz Gatzaga	943 71 47 46
		Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA	
Astelehena, 9	8 · 11 · 14 · 16 · 20 · 49
Osagarria: 41 Itzulketa: 1	
Martitzena, 10	14 · 19 · 24 · 25 · 28 · 37
Osagarria: 22 Itzulketa: 7	
Eguaztena, 11	7 · 20 · 26 · 42 · 45 · 49
Osagarria: 29 Itzulketa: 7	
Egubakoitza, 13	38 · 47 · 13 · 29 · 48 · 7
Osagarria: 32 Itzulketa: 9	

ONCE	
Astelehena, 9	84.673
Martitzena, 10	34.685
Eguaztena, 11	31.933
Eguena, 12	67.281
Egubakoitza, 13	77.640
Kupoitzarra (059 seriea)	
Domeka 15	20.473
Kupoitzarra (060 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA	
Eguena, 12	17 · 19 · 20 · 25 · 44 · 46
Osagarria: 31 Itzulketa: 9	
Zapatua, 14	5 · 8 · 13 · 24 · 25 · 31
Osagarria: 22 Itzulketa: 0	
Zapatua, 14 (Saritzarra)	11 · 17 · 18 · 32 · 53
Itzulketa: 3	

Gazte zerbitzuak

LANA I
• **Gazte begiralea.** Elgeta. Gazte lokalerako begiralea kontratatu nahi du Udalak. 11 eta 16 urte arteko gazteentzat lokala zabaltzeko asmoa du eta horretarako begiralea kontratatu nahi dute urtariletik maiatzera.

• **Kultura laguntzailea.** Eibar. ibar-ko Udalak aldi baterako kultura laguntzailea behar du. Deialdiaren oinarriak herritarren zerbitzurako bulegoan daude eskuragai, Untzaga plazako Pegoran. Epea: urtarrilak 26.

• **Adimen urritasuna dutenen etxebizitza arduraduna.** Debagoienan giza zientzien arloan lizentziaduna behar da adimen urritasuna dutenen etxebizitzaren arduradun lanposturako. Euskalduna, autoduna eta esperientziaduna. Epea: urtarrilak 25.

IKASTAROAK I
• **Oñatiko Gaztelekuan.** Malabareak, perkusioa, larrugintza eta dantza afrikarrak ikasteko tailer-rrak dira. Plaza mugatuak daude eta izena emateko epea zabalik dago. Doan dira.
• **Patinajea.** Aretxabaletako Udalak antolatuta, zapatu goizetan. Epea: urtarrilak 18.


LEHIAKETAK I
• **Bergaran 2006ko aratusteak iragartzeko azal lehiaketa deitu dute.** Otsailaren 3a baino lehen eraman behar dira lanak Bergarako kultura etxera. 300 euroko sari bakarra emango dute.

IRTEERAK I
• **Eskiatzera.** Arrasate.esaidek astebururo formigalera eskiatzera joateko aukera eskainiko digu. Urtarrilaren 21ean izango da aurreneko irteera.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com





Bertan salgai

ASTELEHENKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibarra okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Nahia Ruiz
Abenduaren 22an, 2 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Ibai Apaolaza
Urtarrilaren 22an, 2 urte. Zorionak! Malen, Ainhoa eta osaben partetik.



ARRASATE
Bittor Gartzia
Abenduaren 24an, 5 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Eñaut Rollan
Abenduaren 27an, 5 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Ramon Ramila
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak!!! Ehiztari eta arrantzaleak.



ARRASATE
Amaia Letona
Urtarrilaren 12an, 10 urte. Zorionak eta musuak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE
Leire Lopez
Urtarrilaren 20an, 24 urte. Zorionak! Lagun guztien partetik.




ARRASATE
Malen Artetxe
Urtarrilaren 20an, 2 urte. Zorionak ttiki eta ttintta, eh! Etxekoan partetik



BERGARA
Nikolas Arzelus
Urtarrilaren 7an. Zorionak eta urte askotarako! GOIENKARIAkoak.



BERGARA
Maialen Verquizas
Urtarrilaren 9an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Martin Verquizas
Urtarrilaren 9an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Aitzol Gutierrez
Urtarrilaren 13an, 13 urte. Zorionak! Gurasoak eta anaia Mikel.



BERGARA
Maialen Ibarra
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Ana Fuentes
Urtarrilaren 14an, 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Ander.



BERGARA
Gaizka Diaz
Urtarrilaren 16an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak, Uxue, Danel eta Jone.



BERGARA
Maria Galan
Urtarrilaren 18an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ARETXABALETA
Urko Altuna
Urtarrilaren 11n, urte bat. Zorionak familiako guztien partez



ARETXABALETA
Eli Berridi
Urtarrilaren 12an, 18 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Unax.



ARETXABALETA
Kaiet Gonzalez
Urtarrilaren 17an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ARETXABALETA
Eñaut Beltran de H.
Urtarrilaren 17an, 5 urte. Zorionak txapeldun! Alaitz, Manex eta Monika.



ARETXABALETA
Malena Gonzalez
Urtarrilaren 19an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ELGETA
Iñaki Askasibar
Urtarrilaren 16an, urtebetetzea. Birritan zorionak. Lankideak.



ELGETA
Iñaki Askasibar
Urtarrilaren 21ean, urtebetetzea. Urte askotarako. Lagunak.



OSINTXU
June Arando
Urtarrilaren 16an, 2 urte. Zorionak, txori txiki!!! Musu handi bat etxekoan partez.

Hildakoak

Juan Carlos Garitano Manurga
Bergaran, urtarrilaren 4an. 66 urte.

Maria Dolores Zubizarreta Jausoro
Aretxabaletan, urtarrilaren 5ean. 84 urte.

Inazio Elkoroiribe Lizarralde
Bergaran, urtarrilaren 6an. 90 urte.

Klara Aranaz Arrieta
Arrasaten, urtarrilaren 7an. 84 urte.

Eugenia Etxebarria Urtzelai.
Arrasaten, urtarrilaren 7an. 93 urte.

Kandiko Leturiaga Moia.
Oñatin, urtarrilaren 8an. 70 urte.

Jose Ignacio Roa Roa
Oñatin, urtarrilaren 10ean. 50 urte.

Francisco Javier

Esteibar Egaña
Arrasaten, urtarrilaren 10ean. 61 urte.

Aurelia Ibarrola Albeniz
Bergaran, urtarrilaren 11n. 99 urte.

Victoriano Aranburu Basurto
Aretxabaletan, urtarrilaren 11n. 76 urte.

Unai Zubizarreta Iñarra
Oñatin, urtarrilaren 13an. 8 hilabete.

Divina Riviera Iglesias
Oñatin, urtarrilaren 13an. 94 urte.

Timoteo Iturbe Lizarralde
Bergaran, urtarrilaren 14an. 84 urte.

Purificación Bastida Aranguren
Bergaran, urtarrilaren 13an. 73 urte.

Candelaria Zuazubiskar Arrizabala
Arrasaten, urtarrilaren 14an. 91 urte.

Jaiotakoak



Ana Maria Mendoza Ardia
Antzuola • 3,020 Kg. Urtarrilak 10. Gurasoak: Angelica eta Jorge (Kolonbia). Argazkian: Ana Maria ama eta ahizparekin, erdi lo.



Ekaitz Beldarrain Payros
Bergara • 4,020 Kg. Urtarrilak 11. Gurasoak: Aitziber eta Eugenio (Bergara). Argazkian: Ekaitz, amaren besoetan, bapo lo.



Julen Ugalde Gorosabel
Arrasate • 2,660 Kg. Urtarrilak 11. Gurasoak: Dorleta eta Luis (Arrasate). Argazkian: Julen amaren besoetan, goxo-goxo.



Araitz Lizarriturri Etxenagusia
Aretxabaleta • 3,050 Kg. Urtarrilak 11. Gurasoak: Olaia (Aretxabaleta) eta Asier (Zarauz). Argazkian: Araitz, Ainara izebarekin, bapo lo.



Jakes Sarabia Mendia
Arrasate • 3,000 Kg. Urtarrilak 12. Gurasoak: Lurdes (Soraluze) eta Josu (Arrasate). Argazkian: Jakes amaren besoetan bapo lo.



Mikel Ricon Manrique
Bergara • 2,890 Kg. Urtarrilak 13. Gurasoak: Liliana eta Fernando (Kolonbia). Argazkian: Mikel gurasoekin eta Daniel anaiarekin.



ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 01

MEZA

On Victoriano Aranburu Basurto

Apaiza

Arrasaten hil zen, 2006ko urtarrilaren 11an, 76 urte zituela.
Goian bego.

Haren oroimenezko meza domekan, urtarrilaren 22an, 12:00ean, Izurietako San Pedro Apostolua parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko auzoetako bederatzi elizaurreen izenean: Aozaratza, Areantza, Arkarazo, Galartza, Gellao, Goroeta, Izurieta, Larrino eta Mendiola



Ainize Velar Barrutia
Atxondo • 3,310 Kg. Urtarrilak 15. Gurasoak: Leire (Elgeta) eta Anartz (Atxondo). Argazkian: Ainize bapo lo bere kumatxoan.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera edo deitu
943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 09:30

Asteburuari errepasoa eta bilduma egileak

Asteburuak emandako ari errepasoa egin ostean bilduma egileez jardungo dute irratiko kideek. Asier Bergaretxek, esaterako, egutegiak biltzen ditu. Zaletasun horren nondik norakoen berri emango du 11:05etik aurrera.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:00

Asteburuko herriko gorabeherak

Astelehena izanik, asteburuko ekitaldi eta gertakizunen kronika eta errepasoa egingo dute gaur *Udazkeneko saioan*. Informazioa, berriak eta makina bat kontu Oñati gertuago bizi ahal izateko. Hamaika gai jorratuko dituzte gaur ere irratiko kideek.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:05

Almudena Cachok gidatutako magazina

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 09:08

Eguneko analisisa Marian Beitialarriarekin

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Asteburuko gertakariak izango dituzte ardatz

GOITB programazioa

Astelehena, 16



Futbola nagusi 'Harmailatik' saioan 21:15

UDA taldeak etxean jokatu du asteburuan. 3-1 irabazi zion Mutrikuri. Partiduaren laburpena *Harmailatik* kirol saioan eskainiko dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Islandia Imanol Espositorekin
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 17



Imanol Espositok Islandiara bidaia 18:15

Munduari bueltaka saioan, Imanol Espositok Islandiako inguru ederretan barrena egindako bidaia ikusteko aukera izango dugu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia: All Foster.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Islandia Imanol Espositorekin
- 18:45 Albisteak
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean: Harkaitz Cano.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 18



Elorri zuria, sendabelarren tartean 15:35

Sendabelarretan aditu Alberto Altube gatzagarrak elorri zuria izango du hizpide. Haren ezaugarrien berri emango digu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Miguel Etxagibel eta Arnaldo Otegi.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm:
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 19



Ibarreko eta Euskal Herriko aktualitatea 23:00

Marijo Deograsiasek zuzentzen eta aurkezten duen *Berbaire* saioan, aktualitatea izango da mintzagai.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm. Film laburren gaineko saioa.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza: Pakistan.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 20



'Gaurkoak'-en gai nagusiei gainbegiratu 13:45

Eguneko berri garrantzitsuenak albistegi formatu berezian. Albistegi horretan, egunerokari erretratua aterako diote GOITBn.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ikuskizuna.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Kamera aurrean



"Aretxabaletako Institutuan dugu bulegoa eta lan bila dabilen jendea orientatzea da gure ardura"

NEREA MARTINEZ | LANBIDEKO ORIENTATZAILEA
Berriak, 2006-01-10



"Gauza berriek beldurra ematen dute, baina jendea konfiantza osoarekin etor dadila leihatila gabeko bulegora"

LUIS ABAJO | KUTXAKO BULEGOKO ZUZENDARIA
Berriak, 2006-01-11

Harkaitz Cano idazleari elkarrizketa 'Ilunpean'-en

ILUNPEAN:

Egubakoitzean, urtarrilaren 13an, 22:15ean
Aurkezlea: Oihana Elortza

Harkaitz Cano: "Gidatzeko karnetik ez dut, ezta sakelako telefonorik ere"



Ikustekoa!

Urtarrilaren 16a: 071 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 16, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

071
zozketa
saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**




ECRON disk-man bat.

- Paul Garitano Larrañaga (Bergara)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Eburne Barrutia Urreta (Aretxabaleta)
- Salvador Azkoaga Villar (Gatzaga)

Urtarrilaren 23ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMa** bisitatzeko

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

JULEN IRIONDO | KAZETARIA

"Gezurra dirudi, baina oraindik ez ditut ezagutzen Debagoieneko toki guztiak"

Oihana Elortza

1. Ondo portatu da Olentzaro? Nagi samarra naiz besteendako opariak pentsatzeko, eta horrela, gutxi jasotzen dira trukean ere, noski. Azkenean, neure buruari egin dizkiot opariak.

2. Kiroletan egin duzu beti lan? ETBn ibili nintzeanean bai. Garan, ordea, gizarteko kontuak ere lantzen nituen kirolekoek gain. Eta GOITBn, albistegiak eta kirolak.

3. Kirol programa ez ezik, beste ze programa mota aurkeztea gustatuko litzaizuke? Bertso programa bat, adibidez. Oso bertsozalea naiz. Gurean *Hitzetik Hortzera* rekin bazkaltzen dugu ia domekaro.

4. Eta zergatik ez zara bertsolaria? Behar besteko abildaderik ez dudalako, agian. Urte askoan ibili nintzen bertso eskolan baina gero utzi egin nion joateari. Sarri egin dut hori, gauza batekin hasi eta gero utzi. Futbolearen eta eskubaloian ere ibili nintzen, adibidez, baina orain ez dut ez bata ez bestea egiten.

5. Koadrilan ere ez duzu bertsotan egiten? Saia-tzen naiz. *Pitu* eta *Gorka* ere bertsozaleak dira, baina beti ez da egoten puntutan egiteko aukera.

6. Noiz entzuten duzu irratia? Orduoro. Gurean beti dago piztuta irratia eta neuk ere piztuta izaten dut autoan noanean ere. Bate-tik lanagatik, baina bestetik, asko gustatzen zait sentitzea norbait niri berba egiten ari zaidala.

7. Aparkatuta duzu bizikleta neguan? Ez, ez. Ateri egiten badu, nahiz eta fresko egin, ahal den guztietan joaten naiz bizikletan ibiltzera. Mendikoa gustatzen zait, baina errepidean ibiltzen dira lagun gehienak eta baita ni ere orain.

8. Neurtu duzu inoiz zent bat kilometro dauden Debagoieneko punta batetik bestera? Arrasatetik abiatuta bai, baina bestela inoiz ez dut lan hori egin.

9. Honez gero, zure autoak ez du GPSrik behar eta Debagoieneko txokotara heltzeko, ezta? Ez pentsa,



OIHANA ELORTZA

2001ean hasi zen lanean Julen Iriondo oñatiarra GOITBn. Kirolzalea da eta kirola egitea asko gustatzen zaio. Squashean egiten zuen lehen eta bizikleta gainean dabil aspaldian. Egunkariak irakurtzen azaletik hasten da, batzuetan hain serioak diren gaiak ere gustatuak dituelako. Bera ez da serioa, ordea. Irribarrez edo txistuka ikusten dugu sarri erredakzioan.

oraindik badaude ezagutzen ez ditudan tokiak ere. Adibidez, Aramaioko Arexola auzoan egon nintzen joan zden astean eta galdetu egin behar izan nuen nondik joan, ez nintzen aurretik inoiz izan eta.

10. Hasi da sagardotegi denboraldia. Sagardozalea zara? Bai. Koadrilakook urtero joaten gara autobusean sagardotegira. Azken bi urteetan ezin izan dut joan, ea aurrean posible dudana.



Biharamuna

Iban Arantzabal

Zuzenketuetan gozatzen

Disko etxe batian lanian nabilenekuaz gogoratzen egon naiz. Orduan, duela bospasei urte, bazeuzan artistak telebistara faterik gura ez zebena. Bertatik bertara, *Sorgiñen Laratza...* Ez millaka disko saltzen zebena, ezta millakoren bat saltzen zebena be ez zeben ikusten horren biharrik. Saiuok ez ziran musikarien gustoko.

Oinostera, bestelakua gertatzen da. Ikusi dozue *Euskadi Gazteako* bideoak? Musika euskalduna hain gutxi jartzen debela eta kezka beti, baiña musikariak kantudantz: **Aiora, Drogas, Evaristo...** barikuan bertan grabau zeban **Urdangarin** lagunak *Goenkalerako* atal bat be. **Tximistaren** gimnasia agertuko ei da, kantuan eta. Sugak eurak be sustatzeko sugatzen horretan agertu dira beste batzuk be, *Euskadi Gazte* arako kantua egin zeban **Gari**, esaterako.

Zergatixa? Auskalo!

Bate-tik, gainbehera: disko-etxe ezagunak ixten ikusiko ditugu, CD salmenta bazu dabil, pirateua bor-bor, Durangoko azokan jende gutxi... norbere lana erakusten ezin asmauka asko... Bestetik, itxura: norbere kantua baino burua erakusten asko, edo **Patxi Gaztelumendik** esaten zeban moduan: "Dena da planta. Itxura larregi hartuta dago gure kantagintza. Gutxi du senetik, adierazpen zintzotik". Bata zein bestia gaingitu biharko ditugu. Formula? Zuzenketuetan gozatzea, adierazbide eta leku egokietan. Asteburuan **Ben Lee** edarto Amaia antzokian, **Piztiak** Gaztetxian, **Dikers**, **Benito Lertxundi**, **NCC...** Aukerak badare.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog-komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-mail onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /azkarate /argi-plastik /joseba /arregi /BZ-sistemas /blogak/atai /dragon-

oriental /ezkutuorly /gallastegi /garaia

/guztizeder /irudisport /korozabaleta /merkeopari

/multiopicas /ohiak /okipark /vitoria

/pando /udalatx /udalaitz /gorkataxi

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com

